

## Defendatzeko deia

Lehen mailako osasun arretaren aldeko manifestazioa bihar / 9



## D eredurako gonbidapena

Sakanako Mankomunitateak hurren matrikulazioan euskarazko ereduaren alde egitera animatu du / 7

**Etxebizitzarako sarbide zaila dutela gaztigatu dute Urdiaingo gazteek / 13**

**Arakilgo bioaniztasuna bermatzeko sareak 35 kide ditu dagoeneko / 11**

**Konposta eskuragarri dago Arbizuko Hondakinen Tratamendu Plantan / 15**

**DNA programaren erresidentzia artistikoa egiten ari da Led Silhouette taldea Altsasun / 22**



**Binakako txapela buruan, Banakakoa janzteari ekingo dio Zabaletak, Ezkurdiarekin batera / 2-3**



Oraindik ere txapela gehiagoren gose dela eta horretarako gogor entrenatzen duela aitortu du etxarrendarrak. ASPEPELOTA.EUS

# Zabaleta, hori guztia eta gehiago

**PILOTA** Atzelari etxarrendarrak beste erreztaldi bat eskainita eta drone batek ekarrita jantzi zuen Binakako bere hirugarren txapela, Elezkano sendo helduz eta malkoei eutsi ezinik. Orain Buruz Burukoan murgilduko da eta berea ematea du helburu

**Maidar Betelu Ganboa** ETXARREN Binakako Pilota Txapelketan Elezkanok eta Zabaletak sekulako erakustaldia eman eta Peñari eta Albisuri 22 eta 7 irabazita, Zabaletari zein planetatik zertorren galdetzen zion *Garako* Jon Ormazabalek, 1986ko Mundialetan Maradonak sartutako golari Victor Hugo Morales kazetariak egindako narrazioari keinua eginez. *Diario de Noticias*ko Igor G. Vicok Zabaletaren ekaitzaz hitz egin zuen; *Berriak* bera eta Elezkano jaun eta jabe izan zirela nabarmendu zuen; *Diario de Navarra*ko Luis Guineak Zabaleta 2021eko Binakako pilotari onena zela ondorioztatu zuen; *El Corre*oko Juan Pablo Martinek bikotearen joko erakustaldia eta elkar ulertzea goraiatu zuen; eta *Diario Vasco*ko Joseba Lezetak *RAI*ko esatari Mario Ferrettik 1949ko Italiako Giroan Fausto Coppik Cuneo-Pinerolo etapa esanguratsuan egindako balentria ekarri zuen gogora "Un uomo solo è al comando: Zabaleta" titularrarekin, Zabaleta "estratosferikoa" izan zela, "Campionissimo" nabarmenduz.

Izan ere, Zabaleta hori guztia eta gehiago izan zen finalean. Indartsua, erabakigarria, mugarik gabekoa, bikotea, laguna, eskuzabala... eta handia. Handia baita umiltasunean ere, txapelaren meritua Danel bikoteari eman baitzion. Zabaletak jaso zuen finaleko pilotari onenaren saria, merezitakoa eta katedra guztia ados jarri zuena, eta saria eskuan zuela Etxarrendoak Elezkanori egin zion keinua eta eskaintza. Nabarmenezkoa da Etxarrendo atzelaria zeharo hunkituta zegoela. Finala bukatu bezain pronto Elezkanorekin besarkada amaigabea batu zen, eta pilotuta zituen sentimenduak

**"BIOK TXAPELKETA BIKAINA EGIN DUGU ETA HORREKIN GERATZEN NAIZ"**  
**JOSE JAVIER ZABALETA**

askatuz, negar batean aritu zen ondoko prentsaurrekora arte.

## Aita eta lehengusina gogoan

Zabaleta horren hunkituta ikusten ez gaude ohituta. Hori entzuten zen kazetarien talde txetxeetan. "Momentu bereziak dira, eta une horietan hemen ez dagoen jendearekin asko gogoratzen naiz. Txapelketa bat irabazten dudanean beti gertatu izan zait, agian aurrekoetan ez da hainbeste nabaritu eta ez zarete konturatu, baina gurekin ez daudenak etortzen zaizkit burura, eta negar pixka bat egiten dut, baina tartean poza ere bada, txapela lortu izanagatik. Txapel hau egunero nirekin dauden guztiendako da, baina bereziki, gurekin ez dauden aitarendako eta lehengusinarendako. Askok gogoratzen naiz beraiekin eta txapela gehienbat beraiendako da. Eta baita aurten zendutako Perikorendako eta Tomasendako ere" azaldu zuen etxarrendarrak, malkoei ezin eutsi.

## Biak bat

Elezkanok eta Zabaletak finalean eman zuten jokoaren maila hamarretik bederatzira eta erdikoa izan zen. Gutxienik. Hala ere, eta perfekzionista izaki, finalaren hasierarekin ez zegoen guztiz konforme etxarrendarra. "Peñaren eta Albisuren kontrako final zaila genuen aurretik, eta partida bikaina egin beharra genuen, bestela aurkari hauen kontra ez duzu irabazten. Ni ez naiz hasierarekin oso pozik geratu; hasiera irregularra izan da, akatsen bat tarteko, baina Danelek partidari eusten jakin du, eta berak sartu nau partidari. Danelek hasieratik bukaerara partida perfektua egin du, ez du akatsik egin eta hori, final batean, ia ezinezkoa da. Uste dut bigarren zatia oso ona egin dugula eta horregatik irabazi dugula. Izan ere, hau Binakako Txapelketa da, eta uste dut biok ongi jokatu dugula. Horrekin geratzen naiz" nabarmendu nahi izan zuen Jose Javier Zabaletak, meritua Danel Elezkanori aitortuz.



**EGOKI**  
Ventanas PVC Lehoak  
www.ventanasegoki.com

**KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA**

egoki@ventanasegoki.com



948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Bere erakustaldiaz urte luzez hitz egingo dela galdeginda, ez zuen aparteko ezer aipatu nahi izan. "Beno, ongi sentitu naiz gaur, txisparekin, eta sentsazioak, bereziki bigarren zatian, onak izan dira. Tantoak egin ahala hobeki sentitzen nintzen, energia gehiagorekin. Hori egunero egiten dugun lanaren ondorioa da. Danelek oso ongi jokatu du, eta biok partida osoa egin dugu" azaldu zuen soilik.

Danelek ere bikote gisa batu zutela gaineratu zuen. "Josek esan zidan aurrera egiteko, beldurrik gabe; pilota nahiko azkar ateratzen zitzaidan eta mina egiten nuela nabaritzen nuen. Eta zenbait pilota Joseri uzten nizkion berak atzean sekulako mina egiten zuelako; diferentzia markatzen zuen. Bikote gisa final handia egin dugula uste dut" azpimarratu zuen.

Txapeldunek Jon Ander Peña eta Jon Ander Albisu gogoan izan zituzten, "txapelketa oso ona" egin dutelako. Baina Albisuk aitortu bezala, "Josek erraz dominatu nau, eta txapela irabaztea merezi dute. Eurak zoriontzea, ez dago besterik".

**Elkarrekin lortu izanaren ilusioa** Binakako hirugarren txapela jantzi zuen Zabaletak, bere bigarren artilea, aldiz, Elezkanok. Biak oso pozik zeuden txapel hau elkarrekin lortu izanagatik eta 2017an elkarrekin aritu zireneko arantza kendu zuten. "Aspera etorri nintzen lehenengo torneooa Joserekin jokatu nuen eta berak asko lagundu zidan. Ondoren, Binakakoa elkarrekin jokatu genuen, baina finalerdietan mina hartu nuen eta ezin izan genuen txapelketa ongi bukatu. Eta aurten lortu dugu; halako momentu bat merezi genuen. Txapelketan ikaragarri disfrutatu dut Joserekin" aitortu zuen Elezkanok. Iritzi berekoa zen atzelari sakandarra. "Berekin pasatu ditudan lau hilabete pasatxo hauek bikainak izan dira, eta sekulako ilusioa egin dit txapel hau berarekin irabazi izanak" nabarmendu zuen. Kantxatik kanpo ere harreman bikaina dutela agerikoa da.

#### **Arrazoia: eguneroko lana**

Biek ala biek, txapela lortzearen atzean eguneroko lana dagoela argi utzi zuten. "Txapelketa hau jokatzeko prestaketa handia egin dugu. Eguneroko



Zabaletak motorea berotu zuenean Peña eta Albisu jokoz kanpo utzi zituen. Bere nagusitasuna erabatekoa izan zen. ASPEPELOTA.EUS



Etxarrengo atzelariak sari emate ekitaldi osoan ezin izan ziren malkoei eutsi. ASPEPELOTA.EUS

lana da, entrenamendu asko. Hori da txapelaren arrazoia. Eta zerbait lortzeko horrenbeste lan egin eta gero, lortutakoan zapore hobea du" azaldu zuen Etxarrengoak.

Finala irabazita Etxarrenera iritsi zenean, herritarrek ongi etorri txikia egin zioten. "Txaloka hartu ninduten, pankarta batekin. Ez genuen gauza handirik egin, egoerak ez duelako aukerarik uzten, baina polita izan zen, eta gero etxeokoa el-

kartu ginen afaltzera" azaldu zuen Danelek biharamunean.

#### **14 garaipen eta 375 tanto**

Zabaletak eta Elezkanok 2021eko Binakakoan zerbaki ikusgarriak utzi dituzte. Txapelketan partida gehien irabazi dituzte, 14 partida (guztira 18 jokatu dituzte), eta tanto gehien egin dituzten bikotea izan dira: 375 tanto. Euren soilik 234 tanto egin dizkiete.

#### **Eta orain Buruz Burukoa**

Binakako txapela bitrinan gorde eta gero, asteburuan hasiko den Buruz Buruko Txapelketan murgildu da Zabaleta. Etxarrengo atzelaria aspaldi ez zen aritzen txapelketa garrantzitsuenean, eta hori ere finaleko beste sorpresa izan zen. "Barruan dudana

ematen eta lana ahalik eta hobekien egiten saiatuko naiz" azaldu zuen. Asteartean eta ostegunean entrenatuta iritsiko da txapelketara. Pozik dago Aspek aukera eman diolako eta beste txapelketa batean arituko delako, oraindik ere txapel gehiagoren gose baita. Jokin Etxanizekin teknika lantzen ari dela aipatu zuen Zabaletak, pilotakada garbiagoak emate aldera, oraindik ere hobetzeko tartea duelako. Noraino iritsiko ote da?

**"TXAPELA LORTZEAREN ARRAZOI NAGUSIA EGUNEROKO LANA DA; ENTRENAMENDU ASKO" JOSE JAVIER ZABALETA**



Ezkurdiak gaur du hitzordua.

## **Zabaletak Arteaga eta Ezkurdiak Peña**

Martxan da 2021eko Buruz Buruko Txapelketa. Egungo txapeldunak, Erik Jakak, perikarditisa du eta ezin izango du txapela defendatu.

Txapelketa gaur hasiko da, ostirala, Azkoitian, B adarrean Joseba Ezkurdiak eta Jon Ander Peñak jokatu duten partidarekin. Ezkurdiak da faboritua, baina Peñak, Binakako finalistak, sekulako joko erakutsi du eta partida borrokatu espero da. Irabazleak Altuna izango du zain maiatzaren 15ean Bilbon. Buruz Burukoa da Ezkurdiari falta zaion txapela bakarra, eta txapela garrantzitsuena jantzi nahi duela argi du.

Zabaletak Arteaga izango du aurkari larunbatean Labriten, C adarrean. "Helburua nirea ematea da" azaldu du Etxarrengoak. Eta inork ez du zalantzan jartzen. Beraz, edozer gerta daiteke. Garaileak Darioren kontra jokatu du, Donostian.

A adarrean Agirre eta Artola aurkari izango dira igandean Bilbon, eta irabazleak Urrutikoetxea du zain toki berean. B adarrean, Bengoetxeak Rezustaren kontra jokatu du igandeko Bilboko jaialdi berean, eta irabazleak Elezkanoren kontra aritu beharko da Idiazabalen. Momentuz partidak publikorik gabe jokatu direla azaldu du EPEL-ek.



ASTEKOA

RAF ATXURI

## Dardara

Gaztigatu zidaten: ikusi behar duk dokumentala, merezi dik eta! Eta laugarren birusaldiaren bihotzean *Dardara* ikusiz bete nuen gomendioa.

Baiki, Marina Lameirok lan aparta osatu du Berri Txarrak taldearen azken bira islatu eta iradokitzen duela. Izan ere, ez zen lantegi makala aurrean zeukana, BTX talde ikonikoaren ikuspegi orohartzaile eta aldi berean minimal eta zirraraz eta dardaraz beteaz gauzatzea film-dokumental baten bidez.

Euskal rock&rollaren adierazpide nagusietako bat bihurtu da BTX eta leku goren bat lortu du Lekunberriko taldeak top askotan, baita nazioartean ere, leku esanguratsu bat erdiesteraino *mainstream* delakoan, euskal rockari beste koxka bat igoaraziz.

Dokumentalean zaleen hunkidurak nabarmentzen dira, Alemania, Mexiko, Japonia nahiz EHko zenbait zalerengan BTXen hunkimenak eta indarrak nolako eragina duen azaltzen da modu ñabartu eta sotilean.

Masa kulturaren legepean jendetza handi eta giza samalden ikusgarritasuna saritzen da, Youtube-n, Spotify-n milioika klik izatea gailurra da, eta berauetan ere BTX asetu da, asetu denez, baina nago beste inpaktu sakonagorik eragin duela. Testosterona neurtuko emanaldiak, luzaz irauten duten sentimen astinaldiak,

arnas luzeko esaldiak, eszenaratze landuak...

Eta guztiaren gorpuztaile, *factotum* eta txamana. Gorka Urbizuren lotsazko nabarmentze diskretu eta handiosa, taldeari zain oparo eta adar hostotza emankorra ekartzen dizkiona, axtziaren magia, jakintza eta xarmaz ikuskizuna janzen duena.

Halaber ekar dezagun lerrootara Artzai Iraurgiren agertze xumea, BTX crew-ren partaide gisa, haien lana ere ezinbestekoa da zuzenekoetan, hainbeste ikusleren gogo asebete dutenak kontzertuetan.

Jaio, musika, hil... Berpiztu. Bejondeiela. Berriz ikusi arte.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

### Segi dezagun bidean, tontorreraino

#### SAKANAKO SARE HERRITARRA

Aldapan gora eta aldapan behera bidea eginez. Milaka eta milaka izan gara Sare Herriarrak antolatuta 650 mendi tontorretara igo garen herriarrak. Sakanan 17 mendi tontor igo genituen bostehunen bat sakandarrek. Aldarrikapen bera: preso, iheslari eta deportatuen etxeratzea, elkarbizitza eta bakea eraikitzeke.

Izan ere, mugitzen ari da mugitzen ez zen espetze politika. Aukera leiho bat ireki da horretarako. Balioan jarri beharrekoa. Ez nahikoa

oraindik, baina egoera berri baterako urrats gisa ulertu behar dena. Jendarteak bultzatuta, urtetako lan eta borrokaren emaitza.

Arindu zaizkie presoei zenbait neurri eta gutxitu dira senide eta lagunek egin beharreko distantziak. Gertuago daude Unai, Juan Ramon eta Luis. Euskal Herriko espetxeetan daude Asier eta Karlos. Lannemezan-en jarraitzen du Jon Gurutzek. Martxotik aske dago Oihan. Iazko abenduan astebururo 8.850 km egin behar zituzten senide eta lagunak. Egun, 2.174 km. Bada, noski badela, baina ez da nahikoa.

Noiz eta pandemiak espetxeetako egoera okertu besterik ez duenean egin. Agintariekin hartutako neurriekin espetxea gehiago isolatuz, gehiago bakartuz.

Presoaren eta familia zein lagunaren arteko harremana zailduz, aldrebestuz, debekatuz.

Ezin dugu normalizatu, normala ez dena. Urruntze politikaren amaiera euskal preso guztiak Euskal herrian daudenean izango da. Aplikatzan zaien salbuespenetako espetze politikaren amaiera, etxerako bidea oztopatzen ez zaienean izango den bezala.

Etxean eta bizirik nahi ditugu. Bidean jarraituko dugu, aldapan gora eta aldapan behera. Jakina, gehiago bagara bide horretan, indar gehiagoz eta lehenago egingen dugu tontorrerako bidaia.

Eta zalantzarik ez izan, zoritxarrez tontorra egin gabe bidean geratu direnek argituko digute bidea. Eskerrik asko Fran Balda!

## GUTUNA

### 'Ombuaren Itzala' lapurtuta

#### JOSEBA BARRIOLA

Azken aste honetan jakin izan dut *Ombuaren Itzala* lapurtua izan dela. Nola arraio lapurtu daiteke itzala? Ombua Argentinako zuhaitz ospetsu bat da. Ederra da. Eta itzal oso zabala ematen du Argentinako Pampetan zaldiz dabiltzan nekazariarentzat. Ombuari itzala lapurtzen bazaio, adio atsedena Pampetan, adio Ombu zuhaitz magikoa. Hemen esplikazioa eta erreparazioa.

*Ombuaren Itzala* film bat da. Oraindik egin gabe dago. Eta filma, soilik itzalaren pean

hazi eta hezi daiteke. Izan ere, itzal hori, auzolanen bidez (egin gabe dagoen filma ikusteko sarrera 10 eurotan orain erosiz) egin nahi den filmaren finantziarioa da. Auzolanez bildu zen Pedro Mari Otaño bertsolari handiak behar zuen dirua Argentinara emigratzeko. Eta auzolanez egin nahi da *Ombuaren Itzala* filmaren finantziarioa.

Altsasuko txoko batean, horretarako saldatuko sarrerekin jasotako dirua lapurtu dute. Filma itzalik gabe geratu da.

Erreparazioa? Lapurrak, klandestinoki behar badu ere, entrega dezala berak dakien txokoan eramandako dirua.

Erreparazioa? Txokoak bere gain hartzea itzalaren berritzea.

Erreparazioa? Hala nola gauden denok ados lapur handiek –diru publikoaz elikatzen diren poltsiko pribatuek, alfer hutsek, bankuek, energia enpresa erraldoiek... hitz batez txorizo izena merezi dutenek– ordain dezaten legalki edo ilegalki lapurtutakoa... modu berean itzalaren lapurreta deitoratuz, filmaren (ikusle izatetik aparte) produktore finantziarioa bihur gaitezke sarrerak 10 eurotan erosita. Interneten *pellomariotanoauzolana.eus* webgunean baduzue zer ikusi.

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde fundazioa@guaixe.eus

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika info@gkomunikazioa.eus  
Ainhora Etxeberria Pikabea gk@gkomunikazioa.eus

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez admin@guaixe.eus

#### Zuzentzailea:

Patxi Flores Lazkoz

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa guaixe@guaixe.eus

#### Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso kultura@guaixe.eus

#### Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso maketazioa@guaixe.eus

#### Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano publi@guaixe.eus

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua

# ETORKIZUNA GAUR HASTEN DA

Eskola Publikoan irakaskuntza kalitatekoa da, hurbila eta eleaniztuna. Bere etorkizuna erabakitzeke unea hau da.



2021-2022 Haur eta Lehen Hezkuntzako Aurreinskripzioa  
**ZATOZ PUBLIKORA!**

## GUTUNA

**"Bizitzak hiltzen dituen espetxe politikatik askatasunera"**

AMAI ERDOZIA ANSO

ETXARRI ARANAZKO SORTUREN IZENEAN

Maiatzaren 15ean hogeita zortzi urte beteko dira Pello Mariñelarena etxarriarra Pariseko La Santé kartzelan hil zenetik. Bi urte lehenago, Pello eta beste euskal borrokalari batzuei bere Britainiako etxean babesa eskaintzeagatik preso zegoen Jean Groix hil zen Fresnesen. Berrogei urtetan hogeitaz euskal preso politikoren bizitza eta beste hamasei senitarteko eta lagunen bizitzak aurretik eramane dituen espetxe politika kriminal baten adibide gordinak dira.

Azkeneko hilabete hauetan mugimendu esanguratsuak ematen ari dira espetxe politikan. Hamarnaka preso Euskal Herritik hurbilago dauden espetxeetara lekualdatu dituzte; eta kaleratzeko ibilbidea azkartzea ahalbidetzen duten presoan klasifikazioari dagokien gradu progresio bakan batzuk ere eman dira. Urrats esanguratsuak izanagatik, oraindik orain euskal preso politikoen eskubideak urratzen dituen salbuespeneko espetxe politika eraisteko urratsak baino ez dira.

Espetxeak hustea lehenetsuzko erronka da bizikidetzaren normalizatzeko bidean. Baldintzak badaude; Euskal Herriko jendartearen adostasuna ia erabatekoa da, bidea urratzeko tresna eta bitarteko juridiko-politikoak finkatuak daude. Borondate politikoa da azkartu behar dena. Orain bururaino eramane daiteken prozesuak atzerapen gehiagorik izan ez dezan. Atzerapenak pertsonen bizitzak jartzen dituelako arriskuan. Gaur aldekoak diren baldintza politikoa bihar-etzi okerrera ere alda daitezkeelako.

Larunbat honetan Etxarrin, Pello eta Jeanen heriotza eragin dituen espetxe politika salatzen eta euskal preso politikoa guztien askatasuna aldarrikatzeko ekitaldia egingen dugu.

**Etxarriko perimetro itxiera gauerdian bukatu da**

Hala ere, epidemiologia datuak onak ez direla gaztigatu dute osasun arduradunek. Lakuntzako, agian, gaur

SAKANA

COVID-19 gaitzak eragindako kutsatze maila altuagatik perimetro itxiera ezarri zioten Etxarri Aranatzin apirilaren 15ean. Herria salbuespeneko neurriekin hilabete egon da. Nafarroako Gobernuak, Etxarri Aranazko Udalarik kontsulta egin ondoren, gauerdian kendu du perimetro itxiera.

Foru administratibotik azaldu dituzte, COVID-19ren hedapenari eusteko "ezarritako perimetro itxierak eta hari lotutako neurriak herriaren kutsatze eta

positibotasun indize handiak murrizten lagundu dute, bai eta erregistratutako joerak ere". Osasunbideatik adierazi dutenez, "kutsatze ratioa beheranzkoa da, bai biztanleria orokorrean, bai 64 urtetik gorakoetan. Gainera, kasu positiboaren trazabilitatea eta jarraipena oso altua da".

Hala ere, bai Nafarroako Osasun Zerbitzuak baita Etxarri Aranazko Udalak ere etxarriarrei dei egin diete COVID-19 gaitza ez transmititzeko prebentzio neurriak betetzeko eta elkar zaintzeko.



Aste honetan 1.136 txerto jarri dira Sakanan.

Bestetik, gobernutik jakinarazi dutenez, Lakuntzako perimetro itxierari buruzko argibideren bat gaur emanen dute. Lakuntzan COVID-19ren hedapena gelditzeko salbuespeneko neurria maiatzaren 1ean sartu zuen indarrean.

Azkenik, aste honetan 1.136 txerto gehiago jarri dira: astelehenean 170 Altsasun, asteartean 168 sakandar Etxarri Aranatzin. Herenegun Arakil aldeko 162 pertsonak Irurtzunen eta atzo, beste 636 pertsona.

**Donejakue bideko zaleen ibarreko elkarteak sortuko dute**

Igandean, 14:00etan, Itxasperrin Nafarroako Done Jakue Bidearen Lagunen Elkartearen barruan egonen da

SAKANA

"Deitu nahiko nituzke Sakanan diren Done Jakue zaleak Itxasperriko ermitara igandean joateko eta Nafarroako Done Jakue Bidearen Lagunen Elkarteak bazkide egiteko". Mikel Garzian-

dia Goñi, Aralarko santutegiko kaperauaren hitzak dira. Elkartearen Sakanako atala sortuko dute ofizialki etzi. "Bultzada eta indarra emateko. Bidea fisikoki egina dago. Falta dena da jendea antolatzea eta lanean hastea".

Elkarteak dagoeneko Baztango eta Erriberako atalak ditu eta orain Sakanako atala sortu nahiko litzateke. Aurreratu duenez, "udan lanean saiatu nahi dugu. Proiektuak badaude eta lehenbailehen hasi nahiko genuke". Aurten Santiago eguna igandean izatean Jakuetar Urte Santua da. "Baina, pandemia tarteko, Frantzisko Aita Santuak 2022 ere horrela izendatu du. Aurten erromes gutxi espero ditugu eta heldu den urtean gehiago izanen direla pentsatzen dugu".

Elkartearen Sakanako atala ofizialki sortzeko eguna eta tokia ez dituzte nolana aukeratu. "Efesoko Ama Birjina pasatu behar dela baliatuz, aitzakia baliatu dute Donejakue zale sakandarrak biltzeko". Egiarretako ermitan ekitaldia egitearen arrazoia da "Erdi Aroan oso eliza garrantzitsua" zela. "Sakanako erromesen kofradiaren eliza zen. Kofradia hori, gainera, Arakilgo historiarekin oso lotuta dago, mendetan herriak batzarrak eliza horretan egin zituelako".



SARE

**Presoen aldeko bidea**

Euskal preso eta iheslariak etxeratzen eskatuz, eta aldarri hori zabaltzeko, 480 sakandar 17 tontorretara igo ziren larunbatean. Saretik azaldu dutenez, "Izan Bidea dinamika euskal presoan eta iheslariaren etxeratzeari alde, baita elkarbizitza eta bakearen alde gauden herritarrek batzeko asmoa du, pausoak emanaz, bidea izan gaitzen".



©CONTARLO

**Sukaldari zieldiarren itzal luzea**

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Ostalaritza eta Turismo Elkarteak eta Ziordiko Udalak Zalacain jatetxea zena eta Ziordiko sukaldariak omendu zituzten Madrilan astelehenean. Aitzakia Jesus Mari Alegriaren liburuaren aurkezpena izan zen. Ekitaldian Benjamin Urdiain, Jose Ignacio Urdiain, Juan Manuel Mendibe eta Carlos Oiarbide izan ziren.

# D ereduan matrikulatzeko gonbidapena egina

Ikastetxeetan 2 eta 3 urteko haurrak aurrematrikulatzeko epea maiatzaren 17tik 21era da. Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak gurasoak haien txikiak D ereduan matrikulatzera animatu ditu

## SAKANA

Gurasoek seme-alabak ikaste-txean aurrematrikulatzeko garaia bertan da. Horrekin batera, gurasoek beraien txikiendako nahi duten hizkuntza eredu aukeratzeko garaia ere bada. Eta Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak gurasoak D ereduan matrikulatzeko gonbidapena egin die. Gurasoek zalantzarik izan ez dezaten euskarazko eredu hautatzeko hainbat arrazoi eman ditu.

D ereduaren alde egin nahi duten guraso askoren zalantza da haiek euskara ez dakitela. Euskara Zerbitzuko teknikariek gogorarazi diete euskaraz ez da-



Gizona umearen aulkitxoarekin kalean gora. ARTXIBOA

kiten guraso askok hautatu dutela D eredu. Gainera, "milaka haur eta gaztek ikasi dute D ereduan". Euskara Zerbitzutik ziurtatu dutenez, "gehiago dira euskara eskolan ikasi dutenak, etxean ikasi dutenak baino". Ikas prozesuari ere erreparatu diote, izan ere, "hizkuntzak barnertze-ko unerik aproposena haurtzarora da".

## Gehiago

Aldi berean, euskara teknikariren iritziz, "euskara umearen etxeko hizkuntza ez izatea ez da traba euskaraz ikasi eta etxeko lanak egin ahal izateko". Etorkizunera begira ere jarri dira. Batetik, "eskolan ikasi ez dituen beste hizkuntza batzuk helduaroan ikasteko erraztasun gehiago dituzte haur eleanitzek". Bestetik, "D ereduan ikasten dutenek aukera gehiago izanen dituzte eremu profesionalean".

Azkenik, Euskara Zerbitzuko teknikariek gurasoei azaldu dienez, "euskaraz jakiteak ingurua sakonago ezagutu eta ulertzeko aukera" ematen duela. Gaineratu dutenez, euskarazko harreman sozialak, kultur produktuak,

aisialdiko jarduerak eta bestelakoek euskal komunitateko kide egiten dituela hiztunak.

Horregatik guztiagatik, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzutik diotenez, D eredu aukeratzeko "ez zaigu arrazoirik falta". Arrazoi horien guztien berri ematen duten eskuorriak aurrematrikula garaian haurrak dituzten etxetara bidali dituzte. Argudio horiek, gaztelaniaz, arabieraz, frantsesez, ingelesez eta euskaraz irakurtzeko aukera izanen da.

## Lanbide Heziketa

Lan mundura begirako ikasketak egin nahi dituztenek maiatzaren 17tik 26ra dute izena emateko aukera. Bigarren Hezkuntzako eta goi mailako ikasketak egiteko aukera dago Altsasuko Sakana Lanbide Heziketa institutuan.

*Ez zaigu arrazoirik falta*

Nos sobran las razones  
تعدد الدوافع  
Les nombreuses raisons  
There are so many reasons

**Mank**  
s a k a n a



Errepideak eta kaleak asfaltatzeko ibiltzen diren makinetako batzuk. ARTXIBOA

## Errepide sarearen mantentze lanak eman nahi ditu gobernuak

Errepide eta autobietan 2021 eta 2025 urteen artean beharrezkoak diren lanak egiteko deialdia egin du

### SAKANA

Nafarroako Gobernuak Irurtzungo Mantentze Zentroko errepide sarearen zerbitzu mailari dagokion segurtasun eta erosotasun maila mantentzeko lanen deialdia egin du. Hurrengo lau urteetan errepide sarean 23.760.330,57 euro (BEZ kanpo) inbertitzea aurreikusi du. Lanak bi lotetan banatu ditu, errepidean egin beharrekoak batetik eta autobietako lanak bestetik. Foru administrazioetik gaztigatu dutenez, enpresa berak ezin izanen ditu bi lanak eskuratu. Lanak 2021eko lastailaren 1etik 2025eko azaroaren 30era arteko epea hartuko dute. Eskabideak garagartzaroren 8ko gauerdira arte aurkeztu daitezke.

Lehenengo lotean Irurtzungo Mantentze Zentroko errepideak daude. Gaitasun handikoak ez diren errepideen mantentze eta hobekuntza lanak egiteko kontratua 12.396.694,21 eurokoa da (BEZ kanpo). Kontratua eskuratzeko duen enpresak aurtun 600.000 euroko balioa duten lanak egingen lituzke eta 2022tik 2025era urtero 3,6 milioi eurokoak.

Nafarroako Gobernuaren deialdiko bigarren loteak, berriz, Leitzarango Autobia (A-15), Sakanako Autobia (A-10) eta Iparraldeko Autobia (A-1) hartzen ditu bere baitan eta haren balioa 11.363.636,36 eurokoa da (BEZ kanpo). Enpresa hartzaileak aurtun 550.000 euroko balioa duten lanak egingen lituzke hiru autobietan eta 2022tik 2025era urtero 3,3 milioi eurokoak.

### Bidesariak autobietan

Espainiako Gobernuak estatuko autobia guztietan bidesariak jartzeko aukera aztertzen ari dela jakinarazi da. Horren aurrean Nafarroako Gobernuak jakinarazi du Foru Araubidearen arabera, errepideen arloko eskumen eksklusibo duela. Beraz, Nafarroako Errepideen Kataloan integratuta dauden bere titulartasuneko errepideak proiektatu, eraiki, finantzatu eta ustiatzeko eskumena du. Geroz, Espainiako Gobernuak arlo horretan hartuko lukeen erabakiak ez luke foru erkidegoan eraginik izanen.

Jakina denez, Nafarroako Gobernuak herrialdeko bost autobideetan jarri nahi ditu bidesariak, tartean ibarreko hiruretan: Leitzarango Autobia (A-15), Sakanako Autobia (A-10) eta Iparraldeko Autobia (A-1). Nafarroako Gobernuak eta PSN, Geroa Bai, EH Bildu, Ahal Dugu eta Izquierda-Ezkerra parlamentuko taldeek aurreakordioa dute: enpresa publiko bat sortuko dute, ibilgailu astunen bidesariak kudeatzeko eta ezartzeko.

Gobernutik azaldu dutenez, Lurralde Kohesio Departamentuaren proposamena Europako Batzordearen 2004/35/EE Zuzendaritza Nagusiak 22 errepidetakoz babesak egokituko ditu. Horretara 400.000 euroko (BEZa barne) bideratuko



Altsasuko tren geltokian joan den urteko otsailaren 8an egindako elkarretaratzea. ARTXIBOA

# Tren geltokiko aurrez aurreko zerbitzuaren alde

Nafarroako Parlamentuak tren geltokian txartel salmenta zerbitzu presentziala eta bezeroari arreta berrezartzea eskatu du. Joan den urteko apirilatik dago itxita txarteldegia. Tren operatzaile batek edo enpresa batek kudeatu beharko luke

### ALTSASU

Nafarroako Parlamentuko Lurralde Kohesiorako batzordeak zabalik dauden tren geltokietan aurrez aurreko zerbitzua eskaintzearen alde agertu da. I-E aurkeztutako mozioaren bidez, Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiari du "Castejongo, Altsasuko eta Tafallako tren geltokietako txartel salmentako zerbitzu presentziala (txarteldegia) eta bezeroari arreta emateko laster berrezartzearen alde egin dezan Estatuko Gobernuaren aurrean".

I-Ek aurkeztutako mozioak Castejongo tren geltokia aipatzen zuen bakarrik, baina onartu egin zuen Geroa Baik aurkeztutako

gehitze zuzenketa eta mozioan Tafalla eta Altsasuko tren geltokien aipamena ere sartu zuten. Navarra Sumaren eta PSNren abstentzioekin onartu zen mozioa. I-Ek adierazi duenez, pandemia ezin dela aitzakia izan garraio publiko, sozial eta jasangarri hau ez sustatzeko.

### Altsasu

Tren geltokiko billete txarteldegia joan den urteko apirilera arte egon zen zabalik. Ordura arte trenbideen azpiegituraz arduratzen den Adif enpresako bi langile aritu ziren horretan. Baina Adifek, legez, ezin du tren garraiorako txartelik jaso, bere estatutuaren ez dago halakorik.

Tren operatzaile bat, esaterako, Renfe, edo kanpoko enpresa bat izan behar du txartel salmentaz arduratu behar duena. Beraz, txarteldegia 13 hilabete egingen ditu itxita.

Renfek argudiatu zuenez, txarteldegia zabalik mantentzeko adina bidaiari ez du Altsasuko tren geltokiak. Eta zerbitzua eman nahi duen eta interesa duen beste enpresarik ez da azaldu, errentagarria ez delakoan. Tafallako tren geltokian behar bereziak dituzten pertsonen enplegarritasuna sustatzeko egitasmoa bat hizpide izan zuten, baina ez zen gauzatu. Eta Altsasurako halakorik ez zen ezta proposatu ere egin.

## Lizarragako portuko bazter babesak moldatuko dituzte

Haien hasiera eta akaberak lurreraino luzatuko dituzte, istripu kasuan ertz arriskutsurik ez izateko

ERGOIENA / ARBIZU / LIZARRAGABENGOA Lurralde Kohesiorako Departamentuko Herri Lan eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak 22 errepidetakoz babesak egokituko ditu. Horretara 400.000 euroko (BEZa barne) bideratuko

ditu. Tartean daude Lizarragako portua eta Arbizu lotzen dituen NA-7100 eta Arbizu eta Lizarragabengoa NA-7520 errepideak.

Ibilgailuren bat bidetik ateraz gero, gerta liteke errepide bazter babes horiek autoaren barruan

sartzea eta istripua larriagotzea. Hori saihesteko euste hesi horiek luzatu eta lurrean edo paretaren batean sartuko dituzte. Bestela, lurra botaz egingen da. Ez da aurreikusten uhin bikoitzeko zatirik jartzea, salbu eta erdiko frakzioa errepideko zoruarekiko maila nabarmen baxuan badago. Gainera, trafikoaren eraginez kaltetutako bandak berriro jarriko dira, muturretan egokitu behar badira. Lan horiek dagoeneko Urbasako portuan eginak daude.



# Lehen mailako osasun arretaren alde

Larunbatean, 17:30ean, Iruñeko Baluarte plazatik abiatuko den 'Zure herria, zure auzoa, zure osasun etxea zaindu!' manifestazioan parte hartzera deitu du Nafarroako Osasun Plataformak

## Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Pandemiak eragindako olatuek eta gaitzaren agerraldiek gaixo gehiago eragiten dituzte eta Sakanako osasun etxeetan lana pilatzen da: PCR probak egin, positiboak diren pertsonen jarraipena egin... Gainera, txertaketa kanpaina gehitu behar zaio horri guztiari. Eta lehendik zeuden egitekoak segitzen dute. Horiek egunero ikusten dira ibarreko eta herrialdeko osasun etxeetan.

Nafarroako Osasun Plataformako kideek gaztigatu dutenez, "pandemiaren kudeaketa gogor kolpatzen ari da Nafarroako herritarren osasun eskubidea. Aurrez aurreko arreta murriztea,



Etxarri Aranazko osasun etxea. ARTXIBOA

lehen mailako arretan hitzordua lortzeko denbora gehitzea, osasun zentroetan osasun publikoko jarduerak desagertzea, biztanleriaren buru osasunean ondorio orokortuak areagotzea..." Gaineratu dutenez, "herritarren eta profesionalen arteko harreman giroa hondatzeko arrisku larria dago; izan ere, plantillak ahaztu egiten ditu kudeaketa horrek, eta, askotan, alde batera uzten ditu, higadura eta desmotibazioa eraginez, eta herritarrek ez dituzte beren beharrak betetzen".

Osasun Departamentuko arduradunen "utzikeria" salatu dute plataformatik, "beraien promesak behin eta berriz atzeratu ondoren,

## Plantillak

### Irurtzango osasun eskualdea

Haren ardura dira Lekunberri, Bete-lu, Larraun eta Araitz. Eta Sakanan Arakildik Arruazuraino. Irurtzunen 2 mediku, 2 erizain, 2 administratibo, pediatria (plaza hutsik), pediatria erizaina eta gizarte langile bat daude (astean bitan Irurtzunen eta beste hirutan Etxarri Aranatz). Emagina asteen bitan joaten da. COVID-19 txertaketak egin behar dituztenean edo oporrak ordezkatzeko erizain bat joaten da lanera. Uharte Arakilgo kontsultategian mediku, erizain eta administrari bana daude, azken hori lanaldi erdian.

### Etxarri Aranazko osasun eskualdea

Lakuntza eta Urdiain arteko osasun eskualderako 4 mediku daude: 1 Lakuntza-Arbizu, 2 Etxarri-Ergoie-

na, 1 Bakaiku-Iturnendi-Urdiain, 4 erizain, 4 administratibo, pediatria bat, pediatria erizaina eta gizarte langile bat (astean hirutan Etxarri Aranatz eta beste bitan Irurtzunen). COVID-19 txertaketak egin behar izan direnean ez dute beti errefortzurik jaso.

### Altsasuko osasun eskualdea

Altsasu, Olatzagutia eta Ziordia hartzen ditu. 6 mediku: 4 Altsasun, 1 Olatzagutian, 1 Altsasu-Ziordia. Hiru mediku bajaran daude, baina gaur egun aldikako ordezkapenekin postu guztiak beteta daude. Hau da, mediku finkorik ez dagoela. Eskualdeak 6 erizain ditu, medikuen banaketa berarekin. Horretaz aparte daude: pediatria, pediatriako erizaina, 4,5 administrari, gizarte langilea, bi fisioterapeuta, errehabilitazioko medikua eta X izpietako teknikaria.

ez dute horietako bat ere bete Osasunbidearen narriadura azkarra konpontzeko". Bestetik, Nafarroako Gobernuako arduradunek "osasun sistema publiko

eta pribatuaren beharrezko lan-kidetzaren atzean, osasun pribatuaren mesedetan sistema publiko deskapitalizatzeko estrategia eta praktika" daudela salatu dute.

## Lekukotzak

- 1. Zergatik atera behar da kalera osasun etxea defendatzera?**
- 2. Zeren falta sumatzen duzu osasun etxean?**
- 3. Konpondu beharrekoen artean, zuretako zeinek du premia handien?**

### MERTXE MAZKIARAN GURIDI

- 1.** Dagoeneko zaharrak gara eta osasun etxean zerbitzu ona egotea behar dugu. Medikuek bajaran daude, ez daude mediku guztiak, horregatik etortzen naiz.
- 2.** Osasun etxera etorri naizenetan, langile guztiak daude. Baina jendea dago handik hona mugitzen, asko. Lan handia dute, ez daude beti bezala lanean. Langile gutxi daude. Nik ez dut kezarik, arreta egokia izan dut. Baina langileak gaizki daude.
- 3.** Langile gehiago ekarri behar dituzte; medikuak, erizainak edo behar dutena. Gutxi daude.

### NIEVES MARTINEZ DE LA FUENTE ARRIBAS

- 1.** Gauden baldintzetan, ateratzea beste erremediorik ez

dugu. Ea behingoan kasu egiten diguten.

- 2.** Gauza asko falta dira. Aurrekoan erori zen pertsona batekin hitz egin berri dut. Esan dit osasun etxera deitu eta deitu egon dela, eta ez zioten telefonoa hartzen. Orain hartu dute. Ez dago bere medikua, baina gutxienez begiratu diezaiotela, zauria du eta ez daki zer egin. Hemengo langileek ez dute errurik, agintzen dietenek baizik. Haien hutsak guztiak ordaintzen ditugu.
- 3.** Ez naiz horretarako egokiena. Baina, gutxienez, telefonoz hots egiten duzunean erantzun diezazutela. Eta, ondoren, etortzen zarenean ongi arta zaitzate.

### RODOLFO MARQUEZ PERUJO

- 1.** Bazterrean uzten gaituzte eta erantzun gutxi ditugu. Kalera ateratzen gara osasun etxeari buruzko erantzun horiek nahi ditugula ikus dezaten. Jendea kexatzen da baina ez da kontzentrazioetara etortzen erantzunak jasotzeko.
- 2.** Ni ez naiz etortzen. Baina gauza ez dago ongi. Ez dute jendea sartzen uzten, ez dituzte zaintzen... Gaizki tratatzen gaituzte.

- 3.** Landa eremuko osasun etxe guztietan arta gaitzate. Eta azaldu diezazutela zerbatik ezin gaituzten artatu, edo zergatik ezin garen lehen bezala mediku kontsultara joan.

### ANTONIO SANCHEZ PINTADO

- 1.** Martxoaren 10ean emaztearekin osasun etxera etorri nintzen. Kontsulta 11:20ean genuen eta 12:30ean atera nintzen. Nahikoa da, ez? Gainera atea jo eta "segundo batzuk itxaron" esaten zuen. Hirutan jo nuen atea eta segundoak

hiru ordu laurdenekoak ziren.

- 2.** Behar bezala artatu dezate. Langileak falta dira. Medikuek kontsultara etortzeko nahi dutenean ematen dizute hitzordua.
- 3.** Osasun langile gehiago jarri beharoko lituzkete. Lau beharrean sei jar ditzate.

### JOSE IGNAZIO ELORZA DIAZ

- 1.** Sistema kapitalista dagoen moduan, guztia pribatizatu nahi du. Beraz, gurearen alde borrokatu beharko dugu! Gainera zentro pribatuak

laguntza eman diegu eta ez dute egoera konpontzen. Alderantziz, larriagotu egiten dute. Publiko guztia ondorotzea nahi dute, hara, pribatuetara joan gaitzen.

- 2.** Osasun langile gehiago. Ez dira guztira iristen.
- 3.** Nafarroako Gobernuak osasun etxe bakoitzari beharrezko langileria eman beharko lioke, sortu daitezkeenei erantzun ahal izateko. Estatuko osasun zentro guztiak publiko bihurtu beharko liriateke.

**BILTOKI**  
TABERNA • JATETKEA

Plater, konbinatuak eta bokatak terrazan  
Eguneko menuak enkarguz

Eguneko menua 11€  
Menu berezia 15€  
Jangela terrazetan

Telefono berria:  
948 562 348 • Altsasu

**PORTUKO**

okidena

Altsasu:  
948 563 822 (denda)  
948 467 153 (lantegia)  
Etxarri Aranatz:  
948 460 988

# Amiantoa edonon ez botatzeko deia

Adavan elkarteko kideek uralita zatiak nonahi botatzearren arriskuaz gaztigatu dute: 'naturan edonon botata uralita zuntza askatzen joaten da eta ingurumena amiantoz kutsatzen da'. Nafarroako Parlamentuan eskaera gehiago egin zituzten

SAKANA

Bide bazterrean botata. Horrela opatu zituen uralita zati batzuk Nafarroako Amiantoaren Biktimen Laguntzarako eta Defentsarako Elkarteko, Adavanekeo kide batek. Juan Manuel Paniagua eta Jose Manuel Bueno elkartekideak azaldu dutenez, "amiantoa duten produktuak espezializatutako enpresek kudeatu behar dituzte, pertsonen osasunarendako oso arriskutsua baita". Horregatik, uralita eta amiantoa duten materialak edonon kontrolik gabe ez botatzeko deia egin dute. Halako isurketen berri duenak udalari jakinarazteko eskatu dute. Gainera, horiek jasotzeko trebatutako pertsonak egon beharko luketeela nabarmendu dute.

## Elkarteak Parlamentuan

Adavan elkarteko kide Paniagua, Bueno eta Julian Ilintxeta Nafarroako Parlamentuan egon ziren martxoaren 26an. Adiera-



Uralita puskek botata. ARTXIBOA

zi zuten, Nafarroan Amiantoa Ezabatze Plan Zuzentzailea "duela bi urte onartu zen eta geldirik dago. Horrek kaltetuak izaten jarraitzea eta urtero jendea arrisku handiagoan egotea dakar". Jarritako epeak ez dire-

la bete azaldu zuten eta amiantoa Nafarroatik 2032rako ezin izanen dela desagerrarazi ziurtatu.

Gaztigatu zuten, "ez dago udalei edo eraikuntzetako edo iturgintzako langileei informazioa emateko prestatutako langilerik, beraien kabuz ari dira". Langileen prestakuntza beharrezkoa zela gaineratu zuten. Amiantoa duten materialak antzemateko arakataileak eskatu zituzten. Bestalde, ohartarazi zuten, "ez dakigu non geratzen diren amiantoaren hondakinak Nafarroan, eta isurketa horiek biltegitratuta daudela esaten bada ere, suntsitu behar da, ezin baita etengabe biltegitratu". Bestetik, amiantoarekin kontaktuan egon diren langile eta pertsonen zaintza protokoloak aplikatzea exijitu zuten, "gaitzak goiz detektatzeko, ez baitakigu gaitza noiz gara dezakegun". Azkenik, kontsumitzen den uraren "azterketa sakona" eskatu zuten, egon daitezkeen hondakinak aztertzeke.

## Santiagoko bidean doan Ama Birjina ibarretik pasako da

Zaragozako Pilar eta Santiago de Compostela lotuko dituen erromesaldia bihurtik asteazkenara arte Sakanan

SAKANA

Laiko eta apaiz talde baten ekimenez sortu zen erromesaldia, *Ama, zatoz* leloa duena. Ama Birjinaren irudi bat Efesora eramane zuten han bizi izan baitzen Andre Maria eta San Joan apostolua. Bedeinkatu ondoren, Zaragoza eta Santiago de Compostela arteko erromesaldiari ekin zioten. Irudia auto baten atzeko aldean daramate eta ibilgailuaren aurretik eta atzetik doaz harekin bidea egiten ari diren erromesak. Erromesaldiko etapa bakoitzaren hasiera mezarekin hasten da eta bukatu, berriz, otoitz giroko ekitaldiekin.

Antolatzaileek Jakuetar Urte Santua dela baliatu dute erro-

mesaldia egin eta harekin "Ama Birjinak Santiago apostoluari egindako bisita gogorarazteko, eta Mariak Santiagori ekarri zizkion graziak eskatuz: kontsolamendua eta itxaropena Kristorengan". Horregatik aukeratu dituzte bai abiapuntua bai helmuga. Ibilbidean hainbat gotzainen harrera egingen diote irudiarri. Baina Galiziako hiriburura iritsi ondoren irudia "Espainiako Andre Mariaren santutegi garrantzitsuetara eramane nahi dugu, santutegi horiek grazia leku gisa berritzea eskatuz, eta Espainia, berriz, Mariaren lurralde gisa". Ibilbidea El Cerro de Los Angeles santutegian des-pedituko du lastailaren 12an.

## Ibilbidea

### Maiatzak 15, larunbata. Iruñea-Irurtzun

**10:30ean** Iruñeko katedrala. Meza nagusia eta irteera.

**17:00etan** Irurtzango Tourseko San Martin parrokiaren harrera, kantuak, olerkiak eta lore eskaintza.

### Maiatzak 16, igandea. Irurtzun-Zamartze monasterioa

**12:00etan** Irurtzango Tourseko San Martin parrokiaren meza.

**13:00etan** Agur ekitaldia eta irteera.

**14:00etan** Itxasperriko Santiago ermitan bazkaltzeko geldialdia.

**15:00etan** Erromesaldia berriro martxan.

**17:00etan** Zamartzeko Santa Maria ermitan otoitz giroa sortzeko harrera ekitaldia, Etxarri Aranazko musikariak, saindua gurtzea eta bezperak.

### Maiatzak 17, astelehena. Zamartze-Aralarko santutegia

**12:00etan** Zamartzeko Santa Maria ermitan meza.

**14:00etan** Agur ekitaldia eta irteera.

**17:00etan** Aralarko santutegian harrera eta otoitz bijilia. Via lucis edo argiaren bidea, bere ideia eta erlijioagatik jazarriak diren pertsonen alde otoitz egingen dute.

### Maiatzak 18, asteartea. Aralarko santutegia-Etxarri Aranatz

**11:00etan** Aralarko santutegian meza eta agurra.

**14:30ean** Zamartzeko Santa Maria ermitan bazkaltzeko geldialdia.

**16:00etan** Martxari berrekinen zaio.

**19:00etan** Etxarri Aranazko Andra Mari ermitaren kanpoko aldean (eguraldiak laguntzen badu) harrera, olerkiak, otoitza eta abesbatza musika.

### Maiatzak 19, asteazkena. Etxarri Aranatz-Lizarrusti-Ordizia.

**11:00etan** Etxarri Aranazko elizan meza, Juan Aznarez gotzain laguntzailea buru dela, eta agurra

**12:00etan** Irteera.

**15:30ean** Lizarrusti gaina. Irudiaren agurra Nafarroari.

## DUELA 25 URTE...



## Erromeria Aitziberko ermitan

Garai batean Urdiaingo ama birjinarengana, ermitara, herriarrak prozesioan joaten ziren, errezatzen, kantaitan eta larreak bedeinkatzen. Horien bidez euria egitea, uzta ona egotea eta beste eskatzen zituzten. Urteak ziren urdiaindarrak Aitziberko ermitara udan besterik ez zirela joaten. Junta Sozialekoek behin baino gehiagotan joateko proposamena egin zuen. Eta maiatza ama birjina guztien hilabetea denez, maiatzaren 18an, larunbarekin, joan ziren. 19:00etako mezaren ondoren auzatea izan zen.

## Arte erakundeek dirulaguntzak eskatzen dituzkete

Altsasuko Udalak herrian programara egonkorra garatzen duten entitate artistikoak bultzatzeko asmoz dirulaguntza deialdia egin du, gehienez 15.000 euroekin hornitu duena. Maiatzaren 24ra arte aurkeztu ditzakete eskaerak. Altsasuko Udalak dirulaguntzak ematerakoan kontuan izanen ditu: proiektu kopurua, proiektu haien ezaugarriak eta aurrekontua. Beren zenbatekoa proiektuan lortutako puntuazioarekiko zuzenki proportzionala izanen da, eta ez da inoiz izanen onartutako aurrekontuaren %80 baino handiagoa. Entitate onuradunek bete beharreko baldintzak eta bestelakoak deialdian zehaztuta daude.



Zaintza sareko kideak azalpenak entzuten, mahai gainean haziak zain dituztela. SAKANAKO GARAPEN AGENTZIA

## Bioaniztasunaren zaintza sarean 35 arakildar

Aurreko astean udaberrian baratzean ereitekoak diren 11 hazi mota banatu zituzten eta udazkenean garai horretako haziekin gauza bera egingen dute. Fruta arbolen zaintzaileak ere badaude

### ARAKIL

Baratzean ereite eta landatze garaia dela baliatuz, tokiko bioaniztasuna mantendu eta ugaltzeko sarea gauzatzeko pausoa eman zuten Arakilgo Udalak, Sakanako Garapen Agentziak eta Arrea elkarteak joan den astean. Helburu horrekin 15 bat pertsona elkartu ziren Ihabarko kontzeju etxean ostiralean. Sakanako agroekologia eskolaren saioko parte hartzaileek haziak modu egokian ugaltzeko oinarritzko prestakuntza jaso zuten: espezieen ugaltze mota desberdinak eza-gutu, hibridazioak ekiditeko gomendioak jaso, hazi gordezko fruituak nola aukeratu, nola garbitu eta kontserbatu, eta abar.

Arakilgo Udalaren Bertako barietateak, bioaniztasun haziak ekimenarenak ibarrean hainbat hazi jaso zituen. Eta, bestetik, XX. mendeko 80ko hamarkadan Sakanan jasotako haziak eta CITA eta CRF gernoplasma banku publikoetan zeudenak ere eskuratu zituzten. Ihabarren udaberrian baratzean ereiteko moduko 11 barietateetako haziak banatu zituzten, esaterako: "eper begi"

babarruna, lekatarako indaba beltz eta txuria (landare baxukoak), "txoporra" babarruna, Krispilla zuria letxuga, Lakuntzako txitxirioa, eta abar.

Sakanako Garapen Agentziako elikadura teknikari Nerea Viana Zugadik azaldu duenez, "Ihabarren izan zirenez aparte, beste hainbeste pertsona ari dira zaintza taldean parte hartzen, guztira 35 bat pertsona dira. Zaintza taldean baratze barietatez aparte hainbat fruta arbola barietateren zaindariak ere badaude" gaineratu du teknikariak. Vianak aurreratu duenez, "hurrengo hazi banaketa udazkenean izanen da, udazkeneko eta neguko barietateen banaketa egiteko balioko duena. Gainera, proiektuaren eta agroekologia formakuntza eskaintzaren markoan jardunaldi eta saio gehiago aurreikusita" dituztela jakinarazi du. Azkenik, azaldu duenez, alubien eta lekaleen laborantza ekologikoari eta Errioxako Angiano alubiari buruzko jardunaldia egin zen Uharteko Arakilgo udaletxean ostegunean. Jakin-garri guztiak 10 bat pertsonak entzun zituzten.

# ikastolak

hezkuntza eraldatzen



**IÑIGO  
ARITZA  
IKASTOLA**

ikastola@inigoarizta.eus  
San Pedro, 16. Altsasu  
948 56 29 51 / 606 03 09 66



**TXIOKA HAUR  
IKASTOLA**

txioka.haur.ikastola@inigoarizta.eus  
Santokristobarren, z/g. Altsasu  
948 37 30 23 / 689 45 41 68



**ANDRA MARI  
IKASTOLA**

etxarri@ikastola.eus  
Utzubartziki, 3. Etxarri Aranzat  
948 46 02 86

**BANAKAKO  
HITZORDUAK**  
hartzeko aukera



*Ikastolaren parte izan zaitez!*

## Irurtzango kirol azpiegiturek araudia dute

Irurtzango Udalak bere kirol instalazioen erabilera eta funtzionamendua ez ezik erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak ere arautu ditu. Udalak haien erabilera ere zehaztu du: eskoletako kirol jarduera fisikoa, herritarren aisialdirako kirolak, kirol erakustaldiak, kirol lehiak eta errendimendu altuko kirolak, baita profesionalak direnean ere.

Hala ere, kirol instalazioetan kirolezkoak ez diren bestelako jarduerak egiteko baimena eman dezake udalak, baldin eta azpiegiturekin bateragarriak badira, betiere ohiko funtzionamendurakin trabarik ez egiten ahaleginduta. Halakoetan Udaletik kanpoko ekimeneko jardueretarako badira, erabilera horretarako ezarritako prezioa handitu egingo da, eta erabilitako ordu guztiak zenbatuko dira, hala gertakizuna edo ikuskizuna presatzekoak nola hori gauzatzekoak.

Iñaki Alforja Sagone-ren dokumentala

# BIZIPREST

Gehiago gara.

Altsasu | Maiatzak 28

18:30 | Gure Etxea



Edukiera mugatua

Jaso gonbidapena:  
Altsasuko Iortia Kulturguneko txarteldegian edo Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan Maiatzaren 28ko 12:00ak baino lehen



Ezkerrean, Kutxa Bira Altsasura iritsi zenean eta ezkerrean, Arbizura iristen.

# Ametsen kutxa Arbizutik eta Altsasutik pasa da

Kutxa Birak harekin herri bakoitzeko ametsa jaso zuen ostiralean

ARBIZU /ALTSASU

Aguraindarrek ekarri zuten kutxa Altsasura. Gaitariak, momotxorroek, txalapartariak eta Idoia Granizo Uribarrenaren bertsoak ongi etorria egin zioten. Ikastetxeetako ikasleek, Zangitu fanfarrea eta Kukurreka kantu poteo taldeak jarri zuten ekitaldiko soinu banda, Kutxa Biraren doinua abestuz. Dantzariak ere parte hartu zuten. Bukaeran Izaskun Etxeberriak idatzitako Altsasuren ametsa kutxan sartu zuten.

Altsasuarrek Arbizura eramateko ardura zuten eta kutxa

kiroldegi parean utzi zuten haien esku. Dantzarien agurraren ondoren, dantzari txiki-kien kalejirak lagunduta plazara joan ziren guztiak. Dan-

tzari txikiak plazan dantzatu ondoren arbizuarren ametsa irakurri zuen haren egileak, Castillo Suarezrek. Aatea ere izan zen.

## Arbizu

### Amets egiteko nahia

Hemen eta ez beste inon jarraitu nahi dugu maitatzen eta maite dugunarengatik borrokatzen. Herri honetan eta ez beste batean ikusi nahi ditugu hostoak berritzen eta lurrera biraka erortzen. Gauden tokian eta inora joan beharrik gabe ikasi nahi dugu gauzak aldatzeko daudela sinesten, kausa berriei oratzen.

Biharko eguna zabaldu nahi dugu absentziarik eta dolurik gabe, debekatutako tokirik eta ordurik gabe. Aro berri bat mustu nahi dugu gure artean ez dagoen jendearekin,

bazterrean daudenekin, galtzaile izan direnekin, hosto erorien hotsarekin.

Loak galarazten digunak ametsak eragiten dizkigu. Bakarrik ezer gutxi gara: haizearen peskizan ibiltzen gara, dantzan dauden hostoei begira. Baina ametsak beti garamatzate norbaitengana: bakarrik dagoenarengana, zauritua izan denarengana, zigortua, zelatatua, alboratua.

Ametsek beti garamatzate baden herri batera, baden hizkuntza batera, baden laguntasun batera.

Baina ez da ametsa bera axola duena orain, amets egiteko nahia dugula baizik.

## Altsasu

### Hitzak Altsasutik

Eta hitza gure lurrean landatu genuen bezala, jarrai dezagun elkartasuna ereiten, euskararen herri libre bat sortzen eta txarrenari onena ateratzen, sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik



Urdindarrak Kaluxa kalean. ARTXIBOA

## Urdiainen bizitzeko nahiak trabak ditu

Etxebizitzarako sarbidea zaila dute gazteek. Hala adierazi du Urdiaingo Gazte Asanbladak

### URDIAIN

Etxebizitzaren alokairu premia ote zegoen jakiteko galdetegia zabaldu zuen Urdiaingo Udalak herrian abenduan. Emaitzak jaso ondoren, udalak zein pauso eman dituen azaldu du David Oroz Alonso alkateak: "gehienbat gazteek erantzun zuten. Herriko gazteekin izan ditugu bilerak". Eta gaineratu du, "gazteak esaten ari direna da herrian nahi dutela geratu bizitzera. Eta hori ez da hasteko modu txarra. Herrian badaude etxebizitzak, baina gazteek zailtasunak dituzte herrian gelditu ahal izateko".

Orozek gaineratu duenez, Nasuvinsa enpresa publikoarekin harremanetan dago Urdiaingo Udala. "Egitasmoak badaude, diru asko eskatzen du horrek eta udalaren aldetik mugak ditugu. Baina uste dut Nasuvinsa, herriko gazteak eta udalaren artean zerbaite egiteko gai izan beharko ginatekeela".

### Gazte Asanblada

Udaberri hasieran etxeetan banatutako ohar baten bidez "etxebizitzaren arazoari" buruzko "ezinegona" azaldu zien Urdiaingo Gazte Asanbladak urdindarrei. Apirilean herrian zabalduzako idatzian Urdiaingo Gazte Asanbladako kideek azaldu zuten, "geroz eta aukera gutxiago gelditzen zaizkigu herrian bizitzeko". Gazteek etxebizitzaren inguruan hainbat arazo identifikatu zituztela jakinarazi zieten gazte erakundeko kideek urdindarrei: "gero eta etxebizitza huts

gehiago daude, eta ez dira merkatura ateratzen (saltzeko edo alokatzeko); merkatuan daudenak oso prezio altua dute; hutsik dauden etxebizitzaren zati handiena eraikin zaharrak dira, oso handiak, saltzen ez diren heinean geroz eta zaharragoak dira; erdigunea husten doa, eta kanpoko aldean eraikitzen da; ez dago alokairurako aukerarik..."

Urdiaingo Gazte Asanbladako kideen iritziak, "arazo horiek guztiak urteek aurrera egin ahala handituz joango dira, gure atzetik heldu direnek gure ezinegon berak izanen dituztelako urte gutxiren baitan". Konponbidearen parte Nafarroako Gobernuaren Nasuvinsa enpresa publikoa izan daitekeela aipatu badute ere, Urdiaingo Gazte Asanbladako urdiindarrei esan diete haiek direla "konponbidearen parte oso garrantzitsu bat, baita aipatutako etxebizitza huts horien jabeak ere, eta arazo erreal horren inguruan hausnartzera gonbidatzen zaituztegu". Gazte Asanbladako gazteek Urdiainen bizi nahi dutela adierazi dute.

Nafarroako Gobernuak udalerrietako despopulazio arriskua ezagutzeko azterketa publiko egin du berriki. Despopulazio mailaren bat duten Sakanako zazpi herrien artean Urdiain dago. Foru administrazioaren ikerketaren arabera Urdiainen populazioaren gainbehera ertaina du (biztanleria %15etik behera murriztu zen 1989tik 2019ra eta 25 bizt./km<sup>2</sup>-tik gorako biztanleria dentsitatea).

## Arkitektura oztopoak non dauden begiratzen ari dira

Herria irigarri izateko dauden oztopoak kentzeko lanean ari da udala

### ZIORDIA

Ziordiar guztiak herriko txoko guztietara eroso iristeko, arkitektura oztopoak identifikatzeko lanean ari da Ziordiko Udala. Olatz Irizar Martinez alkateak azaldu duenez, "hiru ziordiar

daude gurpildun aulkian eta haiekin banaka elkartu gara eta haien laguntzaz oztopoak non dauden zehazten ari gara".

Bestalde, alkateak jakinarazi du jende larriak kalean ariketa fisikoa egiteko parkea jartzeko

asmoa duela udalak. Azkenik, Irizarrek azaldu digunez, COVID-19 gaitzak eragindako pandemiagatik "ez dugu ideia bilketa egin". Udalak ziordiarren iritzia jaso nahi zuen 2020an. Herritarrek zein behar sumatzen duten jaso nahi zen, gero hori egiteko. 2016ko parte hartze aurrekontuen bidez ateratako hiru ideia gauzatu ziren: elkarte azpiko lokala egokitu zen 2017an, gimnasioa 2018an konpondu zen eta 2019an, berriz, haurrendako jolas parkea egin zen.

**SAN DONATO**  
HERRI ESKOLA

**IKASI  
ETA BIZI**

AURREMATRIKULAZIO DATAK  
Maiatzaren 17tik 21era

948567003

<https://etxarrikoeskola.educacion.navarra.es/webcpetxarri@educacion.navarra.es> | Tel. 948567003

# Lakuntzetxeko lanek aurrera segitzen dute

Eguraldiak hobera egin eta kanpoko lanak despeditzeko zain dauden bitartean langileak barruan ari dira lanean. Aralarko santutegi ondoko eraikineko lanak egiteko dirua ematen duten enpresek eta pertsonak ekarpenagatik zerga desgrabazioa dute

## UHARTE ARAKIL

Aralarko santutegiren ondoan oraindik garabia zutik dago, Lakuntzetxe edo Deierri etxeko konponketa lanek segitzen duten seinale. Santutegiko kaperau Mikel Garzandia Goñik azaldu duenez, "barruko lanak ongi doaz. Kontentu gaude. Orain hasiko dira igogailua muntatzen. Eta tenperaturak uzten duenean, goian, teilatuan teilak beharrea harlauzak jarriko dituzte. Eguraldiak berora egiten duenean, kanpoko osatuko dute".

Lanak 450.000 euroko aurrekontua dute, eta beste 100.000 euro eraikina jantzeko.



Aralarko santutegiko lanak Uharte Arakildik.

Santutegiak 60.000 euro jarriko ditu, artzapezpikuak 100.000 euro, 50.000 euroko mailegu bat eskatuko dute eta 340.000 euro mezenasengandik jaso nahi dituzte.

## Laguntzeko aukera

Aipatutako lanak interes sozialeko izendatu ditu Nafarroako Gobernuak eta Mecna zigilua eman dio. Beraz, dirua ematen duten nafarrek eta enpresek zerga desgrabazioa izanen dute. Esaterako, 150 euro ematen dituenari ogasunak errenta aitortuenean %80 (120 euro) desgrabatu dio. Kopuru horretatik gorako dohaintzen kasuan desgrabazioa %40koa da. Desgrabazioa lortzeko diru ematea izen-abizenekin eta nortasun agiriaren zenbakia emanez egin behar da.

Enpresen kasuan sozietate zergako zerga oinarrian kenkaria izanen dute. Gainera, 300 euro ematen badituzte kuota likidoan %30eko kenkaria izanen dute, %20koa gehiago bada. Bai pertsonak bai enpeseak ES11 3008 0045 9840 71845517 kontu korrontean sartu behar dute dirua eta gai gisa "Aralarko santutegia Mezenasgoa" jarri behar dute.

## Bultzada

Garziandiak azaldu duenez, "joan den urtean, pandemiarengatik, ez genuen mezenasgoa ezagutzera eman. Jendea egoera txarrean zegoen udaberrian. Dena den, saiatu ginen sareen bitartez udazkenean pixka bat mugitzen eta, egia esan, 250 pertsonak lagundu dute eta mezenasgoaren bidez 50.000 eurotik gora jaso ditugu".

Aralarko kaperauak gaineratu duenez, "aurreko urtean 250 pertsona animatu baditugu, gure erronka aurten da 2.000 pertsonak mezenasgoarekin laguntza ematea. Erraza baita. Bultzada hori lortzeko orain herriz herri ari gara. Aralarko aingeruarekin joaten garela, hainbat ibarretan horren berri ematen ari gara eta jendearen harrera oso ona izaten ari da". Dagoeneko 126.000 euro jaso dituzte. "Gure asmoa da jakinaraztea nola doan jendeak emandako laguntza, gardentasuna egoteko. Eta, horrela, jendeak badaki berak eman duena zertan gelditzen den". Horren berri ematen du [www.sosaralar.org](http://www.sosaralar.org) webguneak. Informazioa ere [www.sanmigueldealar.org/eu](http://www.sanmigueldealar.org/eu) web orri berrituan opa daiteke.

# HH eta LH

## MAIATZAREN 17TIK 21ERA

# IZEN-EMATEKO EPEA

Altsasuko Korazonistak  
Corazonistas Alsasua

<http://corazonistasalsasu.com>  
948562035

### DBH

## MAIATZAREN 24TIK 28RA

### GOIZTIARREN ZERBITZUA

## Pentsio duinen aldeko mugimenduari aitortza Altsasun

Aurten 20 urte bete dira Altsasuko Gazte Asanblada (AGA) Alde Zaharreko euskal festa antolatzen hasi zela. Orduetik, Altsasuko Gazte Asanbladak urtero herritik eta herriarendako egindako lana aitortzen du, bai pertsonena eta baita erakundee-na ere. Aurten AGAko kideek aitortza makila pentsio duinen aldeko mugimenduari eman zion. Haien ordezkariak ostiralean jaso zuten makila, asteleheneko Zumalakarregi plazako elkarretaratzean bildu ziren pertsona guztiei erakutsi zieten. "Gurekin gogoratzeagatik pozik" zeudela adierazi zuten.

Bestalde, astelehenero pentsio duinen aldeko kontzentrazioek segitzen dutela gogorarazi dute. 12:00etan da hitzordua. Astero tokia txandakatzen dute: Zumalakarregi plaza eta udaletxe parean. Heldu den astelehenean udaletxe parean izanen da elkarretaratzea. Eta iragarri dutenez, hilaren 29an manifestazioa egingen dute Sakanan.



Konpost metatik zakua betetzen. ARTXIBOA

## Mank-ek 200.000 litro konpost banatu zituen joan den urtean

Hirukoiztu egin da konpost banaketa 2021eko lehen hiruhilekoan. Arbizuko plantan eskuratu daiteke

### SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Hiri Hondakin Zerbitzuak jakinarazi duenez, joan den urtean ia 200.000 litro konposta banatu zuen 750 sakandarren artean. Datu horiekin "Sakana konpost banaketan erreferente izaten jarraitzen du", adierazi dute ibarreko erakundetik. Aurtengo konpost banaketaren martxaren berri ere eman dute: 2021eko lehen hiruhilekoan, jada 60.000 litro baino gehiago banatu dira 200 herritarren artean, joan den urtean epe berean banatutakoaren ia hirukoitza.

David Oroz Alonso Sakanako Mankomunitateko lehendakariak esan duenez, "banaketa erritmo honi eutsita, urte bukaeran datu benetan pozgarriak izanen ditugu Sakanarendako. Erreferente gara hondakin bilketan lortzen ditugun emaitze esker, eta hori sakandar asko eta askoren ekarpenari esker izaten ari da. Bide onean goaz".

### Zerbitzua

Mank-ek Arbizun duen hondakinaren tratamendu plantan konposta urte guztian banatzen da, dohainik. Euren baratzeko lurra edo loreontziak ongarritu nahi duten sakandarrendako aukera egokia da, beraz, konposta eskuratzeko. "Aurten ere A kalitateko konposta banatuko da, nekazaritza ekologikoan ere erabilgarria baita, laborategian egindako analisiak zehaztu dutenez". COVID-19 gaitzagatik Arbizun ezarritako perimetro itxieragatik

jendea ezin joanda egon zen bi astez, baina dagoeneko konpost banaketa zerbitzua martxan da.

Arbizuko plantara konpost bila joaten direnek ezin dute nahi beste konpost eraman. Etxebizitza bakoitzeko urteko bost zaku eraman daitezke, eta horietako hiru udaberri hartu daitezke. Hiri Hondakin Zerbitzuko hezitzaileak astegunetan 09:00etatik 14:30era daude plantan. Konposta hartzera joaten direnak, lehenik bulegotik pasa behar dute izena ematera. Hezitzaileek konposta non eta nola hartu behar den azalduko diete. Behin hori eginda, konposta hartu dezake. Mank-etik eskatu dute etxetik zakuak eramatea, nahiz eta zer gerta ere, han ere badituzten. Zakuak betetzeko palak bertan har daitezke, edo norberak berea eraman dezake.

Zerbitzuko arduradunek esker oneko hitzak dituzte Pienso Unamuno enpresarendako, "zirkulu ekonomiarekin bat eginez eskaintzen duen laguntza paregabearengatik, izan ere, pentsuaren salmantan sortutako zakuak ematen baitituzte konpost banaketan berrerabiltzeko".

### Bisita

Martxoaren 24an Etxarriko San Donato Ikastetxe Publikoak aukera izan zuen Arbizuko hondakin kudeaketa planta bisitatu eta ezagutzeko. Bisitaldia esker-tu dute Hondakin Zerbitzuaren arduradunek eta aurrerantzean horrelako ekimen gehiago izanen direla iragarri dute.

# Eskolako patioako lanak emateko deialdia egina

Haiek egiten interesa duten enpresek hilaren 26ko gauerdia arte dute proposamenak aurkezteko aukera. Euri ura biltzeko estolda gehiago jarriko dituzte eta zorua haietara bideratu da, putzuak sortzea saihesteko

### ALTSASU

Zelandi ikastetxeko publikoko eskola kontseiluak eta guraso elkarteak hainbatetan eskatutako lana aurten egingen da. Euria egitean putzuak sortzen dira patioan eta hori saihesteko kanalizazio eta urbanizazio egokia eskatu zuten. Altsasuko Udalak lan horiek emateko deialdia egin berri du eta uda parteko bi hilabeteetan egitekoak dira. Lanek 190.083,40 euroko (BEZ kanpo) aurrekontua dute. Udalak lanak finantzatzeko Nafarroako Gobernuaren 236.000 euroko diru-laguntza du.

Eskolako patio nagusia zelaiegia da eta euria egiten duenean dauden estolda zulo eskasek ez dute ur guztia hartzen eta putzuak sortzen dira. Sarrerako patioan ez dago halako arazorik. Konponbidea emateko kiroldegiaren hego mendebaldean ura jasotzeko saredun kanaltxoak jarriko dute, baita kirol pista berrituaren mendebaldean. Bi hartune horiek



Eskolako patioaren zati bat.

lotuta egonen dira eta hodi hori eskola pareko Zelai Txiki kaleko hodiarekin lotuko dute. 120 bat metro luzeko hoditeria eta hainbat estolda zulo jarriko dituzte. Horretaz aparte, euri ura haie-tara bideratzeko zoruari malda

pixka bat emanen diote zoru berrian.

Bide batez, lanak baliatuko dira baldintza berdinekin kirol pista guztiz berritzeko. Gaur egun pista kiroldegiko eskaileen ondoan "hozka" bat du eta ez da guztiz lauki luzea. Lanak despeditzean, pista 32 metro luze eta 18 zabal izanen dituzte.

Bestalde, Altsasuko Udalak Aita Barandiaran adinduen egoitzako elikadura eta garbiketa zerbitzuak eman nahi ditu. Kontratuaren lizitazio aurrekontua 186.970,53 eurokoa da, BEZik gabe; horietatik 153.288,22 euro elikadura zerbitzuari dagozkie (prezio osoaren %82), eta 33.682,31 euro, berriz, mantentze eta kristalen garbiketa zerbitzuari (prezio osoaren %18). Kontratuak urtebeteko iraupe-na izanen du, eta gehienez ere urtebeteko lau luzapen egin daitezke. Interesa dutenek beraien eskaerak hilaren 30eko gauerdia arte egin ditzakete.

## Karrika Nagusia asteburuetan itxen aurki hasiko da udala

Maiatza eta Lastaila artean itxiko du, behin Lakuntzako eta Etxarri Aranazko perimetro itxierak despeditzean

### ARBIZU

Herrian bertan oinezkoen lehen-tasuna eman asmoz, Arbizuko Udalak erabaki zuen asteburuetan karrika Nagusia ibilgailuen trafikoari itxiko ziola. Eguzki ordu gehien eta arbizuarrek kalera gehien ateratzen diren garaian jartzen da neurria indarrean: maiatza eta lastaila arteko asteburuetan, zehazki, ostiraleko 15:00etatik asteleheneko 08:00ak arte. Bitarte horretan ibilgailu gidariek Arbizu zeharkatzeko Uhalde eta Errekondo karrikak erabili behar dituzte.



Karrika Nagusia itxita. ARTXIBOA

Pandemiak Lakuntza eta Etxarri Aranazko perimetro itxiera ekarri duenez, Arbizuko Udalak erabaki du karrika Nagusia oinezkoendako bihurtzeko aukera atzeratzeko. Bestek beste herri arteko garraio publikoan aritzen diren autobusak karrika Nagusitik sartu behar dutelako herrira bidaiariak hartzera edo uztera.

Bestalde, Arbizuko Udalak jakinarazi du larunbatean, San Isidro egunez, aate egokitua izanen dela 19:30etik aurrera. "Osasun neurriak betez eta banakako edalontzi organikoekin antolatuko dugu aatea herriko plazan. Gure apustua, osasuna arriskuan jarri gabe, ahalik eta ekimen gehien egitea da, egoerara moldatuta bada ere". Feste-tatik aparte lautan egiten dira aateak Arbizun, biharkoa lehena.



Aurretik Nafarroako Erlojupeko Txapelketa hartu izan du Iturmendik. ARTXIBOA

## Afizionatuen Nafarroako Txapelketa igandean Iturmendin

**TXIRRINDULARITZA** Urbasa taldeak 136 kilometroko lasterketa antolatu du, goizeko 10:00etan abiatuko dena

Afizionatuek hitzordu garrantzitsua dute maiatzaren 16an, igandean, Iturmendin. Afizionatuen mailako IX. Iturmendi Trofeoa dago jokoan, aldi berean 23 urtez azpiko eta eliteen mailako Nafarroako Errepide Txapelketa izanen dena eta Euskadiko Abiatzen Torneorako baliagarria izango den lasterketa. Lasterketa Urbasa Txirrindularitza Taldeak antolatu du eta 136 kilometroko lasterketa gorabeheratsua izango da, goizeko 10:00etan hasiko dena.

### Altamira seitan

Antolakuntzak 22,8 kilometroko zirkuitu bat prestatu du eta txirrindulariek zirkuitu hori seitan osatu beharko dute. Iturmenditik Gasteizko norabidean aterako dira txirrindulariak, eta Altsasutik Altamira portua igoko dute. Olaztira jaitsi, eta Iturmendiraino joko dute segidan, herritik

pasa eta Bakaikuraino heltzeko. Han buelta hartu eta Iturmendiraino helduko dira. Esan bezala, zirkuitu hau sei aldiz osatu beharko dute, beraz, Altamira seitan igo beharko dute Altsasuko aldetik eta zirkuitu gorabeheratsua dela esan daiteke. Helmuagaratzea 12:10etik aurrera izango dela aurreikusten da.

Afizionatuen mailako talde onenak izango dira bertan, txirrindulari nafarrak dituzten taldeak bereziki, izan ere, Nafarroako Txapelketa dago jokoan. Jakina, Rural Kutxa-Seguros RGA talde sakandarra ere bertan izanen da eta baita beste hainbat taldetan ari diren txirrindulari sakandarrak ere. Irailean Altsasun jokatu den txapelketarekin batera, hauxe izango da aurten Sakanan jokatu den afizionatuen mailako proba bakarra. Antolakuntzatik osasun neurriak betetzeko deia egin dute.

## Etxeberria Mallorcan

**TXIRRINDULARITZA** Igandera bitartean jokatu da Mallorcako Challengea, eta bertan dabil buru belarri aurten Rural Kutxa-Seguros RGA taldearekin profesionaletan debutatu duen Josu Etxeberria Azpilikueta. Iturmendiarrak azaldu duenez, "ikasten jarraitzea eta Rural Kutxa-Seguros RGA taldearekin kilometroak pilotzen jarraitzea" izango da bere egitekoa.



RURAL KUTXA-SEGUROS RGA

# "Ez nuen espero Nazioen Kopan emandako maila ematea"

**NAHIA IMAZ PEREZ TXIRRINDULARIA**

**TXIRRINDULARITZA** Altsasuara Espainiako juniorren selekzioarekin aritu zen lehendabizikoz asteburuan, Tour du Gèvaudan Occitanie lasterketa gogorrean

### Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Nahia Imaz Perez altsasuara triatloian hasi zen, baina gustukoena txirrindularitza zela konturatu zen berehala, eta bide horretatik egin zuen aurrera. Junior maila mustu du aurten, emakumezkoen Ermitagaña Nafarroa taldean jarraitzen du eta asteburuan lehen aldiz Espainiako junior mailako emakumezkoen selekzioarekin aritu zen, Nazioen Kopako Tour du Gèvaudan Occitanie lasterketan. Oso pozik itzuli da.

### Noiz hasi zinen txirrindularitzan?

Hasiera batean triatloian hasi nintzen. Gehien gustatzen zitzaidana bizikleta zen, korrika egitea ez bainuen oso gustuko. Bizikletan ateratzen nuen abantailarik handiena, eta Burunda Txirrindularitza Taldean izena ematea erabaki nuen. Uste dut eskoletako kimuen kategorian hasi nintzela. Haurren maila bukatu nuen arte egon nintzen eta kadeteetan Ermitagaña Nafarroa taldera joatea erabaki nuen.

### Emakumezkoen taldea delako?

Bai. Burundan nire kategorian neska bakarra nintzen. Aldiz, Ermitagaña Nafarroan guztiak gara emakumezkoak, eta horregatik erabaki nuen aldatzea. Emakumezkoen lasterketara goaz, orain taldekide pila bat gaude... oso gustura. Baina ez gara soilik emakumezkoen lasterketan aritzen; emakumezkoen lasterketa asko ez daudenez,

lasterketa mistoetan ere aritzen gara, mutilekin batera, eta halako lasterketak erritmoa hartzeko ere erabiltzen ditugu.

**Kadete mailan nabarmentzen hasi zinen eta iazkoa, 2020 urtea, zure urtea izan zen. Hainbat lasterketa irabazi zenituen, Nafarroako txapelketa zara errepidean, erlojupekoan eta ziklo krosean, eta Euskal Herriko Txapelketa eta Trofeoa irabazi zenituen. Badakizu zenbat garaipen dituzun?**

Ez (kar, kar...). Ez dakit zenbat diren, baina ez dira hainbeste. Egia esan, 2020 urtea, nahiz eta pandemiagatik denboraldi berezia izan, niretako denboraldi oso ona izan zen. Dena ongi atera zen, eta hortxe ibili ginen, buruan. **Aurten jubentzen mailara igo zara. Kategoria aldaketa nabaritzen da?** Bai, asko. Kadeteetan 30 kilometroko lasterketak izaten dira, ez dago ia aldaparik. Aldiz, jubentzen mailan 70-60 km inguruko probak dira, portuak egoten dira eta lasterketa gogortzen da. Honek esan nahi du gehiago entrenatu behar dela. Zenbat entrenatzen duzun? Astearen arabera, baina astean 7 ordu inguru. Dena den, hau ditugun lasterketen

**"TOUR DU GÈVAUDAN OCCITANIEN TOPERA GINDOAZEN UNEORO; SENTSazio OSO ONAK IZAN NITUEN"**

arabera, aldatzen da. Batzuetan ere atsedean hartzen dugu eta ez dugu bizikleta hartzen. Txirrindularitzan ongi errekueratzea ere oso garrantzitsua da.

**Kadete izan zinenen Nafarroako selekzioan aritu izan zinen, baina aurten, junior mailan zaudela izan da Espainiako selekzioetik deitu zaituzten lehen aldia.**

Orain arte Nafarroako selekzioarekin ibili izan naiz, baina Espainiakoarekin ez, ez baitago emakumezkoen kadeteen mailako Espainiako selekzioarik. Hortaz aurten, jubentzen mailan Espainiako selekzioarekin, Gema Pascual hautatzaileak deituta. Nafarroatik hiruri deitu ziguten, Laia Puigdefabreas taldekideari eta Jimena de la Roari, eta beste hirurak –Ainara Albert, Andrea Lopez eta Sandra Gutierrez– beste leku batzuetakoak ziren. Aurretik ezagutzen nituen, haiekin noizbait lehiatu naizelako.

**Nazioen Kopako Tour de Gèvaudan Occitanie lasterketa ospetsuan lehiatu zinen selekzioarekin asteburuan. Bi etapako proba gogorra zen. Zer moduz aritu zarete?**

Larunbateko etapak lau portu txiki zituen eta esprintean erabakiko zela aurreikusten genuen, horregatik esprinterrandako prestatu genuen: Igandekoa, aldiz, askoz ere gogorragoa zen. Bi portu garrantzitsu zituen, tartean 1. mailako Jalabert gogorra, eta, hortaz, eskalatazailen-





Nahia Imaz Perezek sekulako denboraldia egin zuen iaz. Nafarroako eta Euskal Herriko txapelduna izan zen. Aurten juniorren mailari primeran ekin dio. UTZITAKOIA

dako prestatu genuen. Ni mendian naiz trebeagoa; askoz hobeto moldatzen naiz portuetan.

#### **Aurreikusi moduan garatu ziren etapak?**

Bai. Lehen etapan talde txiki bat iritsi zen aurretik eta etapa esprintean erabaki zen. Taldekideak ongi ibili ziren, baina ni ez hainbeste, bero handia zegoelako eta niri beroa ez doakidalako ongi, baina etapa aurrera atera nuen. Bigarren etapa oso gogorra zen. Hemen ez ditugu 1. mailako Jalabert bezalako portuak igotzen, hemengo lasterketak ez dira hain gogorrak. Lehendabiziko portua ez genuen oso azkar igo, baina bigarren portua, aldiz, bai. Eta portu horrek, Jalabert portuak, lasterketa guztiz apurto zuen. Nire burua oso ongi ikusi nuen,

sentsazio onak izan nituen eta azkenean 18. postuan sailkatu nintzen 2. etapan. Halako maila ematea ez nuen inondik inora espero.

#### **Beraz, lehertuta baina oso pozik itzuli zinen etxera.**

Bai, oso pozik. Selektzioako arduradunek ere balorazio ona egin dute. Nire taldekide Laia Puigdefabregas 12. postuan sailkatu zen proba orokorrean, eta taldekide guztiek egindako lanarekin kontentu daude. Selektzioa hau-

### **"MENDIAN NAIZ TREBEAGOA; JALABERTEN NIRE BURUA OSO ONGI IKUSI NUEN"**

tatzaileak esan zigun sentsazioak bikainak izan zirela eta selektzioak egingo dituen teknifikazio kontzentrazioetan jada barruan gaudela. Uste dut urtean hiru egiten direla, baina oraindik ez dakit noiz izanen diren.

**Aurten afizionatuen mailan debutatu duen Aitor Alberdi arbizuarrak (Rural Kutxa-Seguros RGA) aipatu zuen denboraldi hasieran Iparraldeko bi lasterketetan aritu zirela eta sekulako alde zegoela hemengo txirrindularitzaren eta hango lasterketen artean. Han askoz ere azkarrago joaten dela. Zuk ere hori aipatu duzu.**

Bai, hala da. Han uneoro topera zoaz. Hemen lehiatzen dugunean hasieran lasai goaz, eta portuak iristen direnean topera hasten gara eta gero laster-

keta bukatzen da. Han uneoro topera. Nire ustez han askoz hobeki ibiltzen dira bizikletan. Norbait ukitzen badute segituan aldentzen dira alde batera; hemen zailagoa da. Atzetik aurrera pasatzea ez da hemen bezain zaila. Nik hango lasterketak gustukoago ditut.

**Oraindik ere asteburuko esperientzia hori gozatzen egongo zara, baina zein da zure aurtengo helburua? Zein lasterketa dituzu begiz jota?**

### **"PIXKANAKA JOAN NAHI DUT, ETA DATORREN URTEARI BEGIRA, GAUZAK ONGI EGITEA"**

Batetik, berriro ere selektzioan aritzea gustatuko litzaidake, eta bestetik, Espainiako Txapelketetan postu on bat lortu nahiko nuke. Kasu honetan, eta aldaketarik ezean, Nafarroako selektzioarekin ariko nintzateke. Uste dut Espainiako Txapelketak uztailearen bigarren astean jokatuko direla. Eta, bitartean egutegiko gainontzeko lasterketetan ariko naiz. Oker ez banago, maiatzaren bukaeran Emakumezkoen Lakuntza Lasterketa jokatuko da eta ondoren Tafallakoa.

#### **Emakumezkoen txirrindularitzak gora egin du?**

Nire ustez nabarmen egin du gora. Aurten gure taldean neska askoz ere gehiagok eman dute izena, eta hori taldean nabaritu egin da. Aurten hiru sakandar gaude: kadete mailako Leire Urtasun eta Bakarne Arregi lakuntzarrak eta ni. Egia esan, emakumezkoek txirrindularitzan jarraitu ahal izateko garrantzitsua da emakumezkoen taldeak egotea.

#### **Pentsatzen dut junior mailan zure helburu nagusia kategoria berrian ahalik eta hobekien trebatzea, aurrera egitea eta gutxika gora egitea izango dela, ez?**

Bai. Progresioa izatea, pixkanaka joatea, eta datorren urteari begira, ongi egitea.

#### **Ermitagaña Nafarroako elite eta afizionatuen mailako kategoria du?**

Egon, badago, baina oso taldekide gutxi daude, eta ez dira beste herrialdeetako lasterketetara joaten. Ildo honetan, afizionatuen mailan Gipuzkoako eta Bizkaiko taldeek baliabide gehiago dituzte eta talde garrantzitsuagoak dira.

**Denboraldia ez da hasi besterik egin. Ea zure asmo guztiak gauzatu ziren!**

Eskerrik asko! Hala nahiko nuke.

Centro Integrado Politécnico  
**FP SAKANA LH**  
Ikastetxe Integratu Politeknikoa

<https://fpsakanalh.educacion.navarra.es/web/>

948 564 815

Sakanako lan-eskariari egokitutako formakuntza



Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza eta Zerbitzu-Ikaskuntza Metodologian lan egiten dugu.

#### **Izena emateko epea maiatzaren 17tik 26ra:**

- Goi Mailan
- Mekatronika Industrial
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren
- Programazioa (DUALa)

#### **Ertain Mailan**

- Mantenu Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mendekotasun Egoeran Dauden Pertsonen Laguntzea (euskaraz)
- Sistema Mikroinformatikoak eta Sareak (euskaraz)

#### **Ekainaren 2tik 11ra:**

- Ertain mailan
- Araubide bereziko Kirol Ikasketak
- Oinarrizko Lanbide Heziketan
- Merkatal Zerbitzuak



# Kapitainak azken bultzada eskatu du

**ARETO FUTBOLA** Osasuna Magna Xotaren helburua 1. mailako kategoriari eustea da eta 4 partida oso garrantzitsu ditu aurretik. Liga zaila izaten ari dela dio Roberto Martil kapitainak, baina azken ahalegina eskatu du

**Maidar Betelu Ganboa** IRURTZUN

1. Mailako Areta Futboleko Liga despeditzeko 3 jardunaldi falta dira. Eta 3 jardunaldi horiez gain, Inter Movistarren kontra atzeratutako partida jokatu beharra du Osasuna Magna Xotak. Hortaz, talde irurtzundarrak 4 hitzordu oso garrantzitsu ditu aurretik denboraldi honetako helburua lortzeko: 1. mailan jarraitzea. Lanbide horretan lesioa gainditzetik bueltan den Roberto Martil Fernandez kapitainaren itzulerara oso ongi etorriko zaie.

Martxoaren 21ean Barçaren kontrako partidaren lesionatu zen Roberto Martil. Kapitain irurtzundarrak 3 zentimetroko zuntz haustura izan zuen eskuineko bikian. "Sastada nabaritu nuen eta haustura nuen, nahiko handia. Baina errekuerazioa oso ongi joan da; fisioterapeutek eta prestatzaileak nirekin lan handia egin dute, eta jada ongi nago, taldearekin normal entrenatzen, Zaragozaren kontrako astearteko partidaren kantzara bueltatzeko gogoz" azaldu du Robertok.

**Sailkapena, oso estu**

Taldekidetate bere buelta eskertuko dute, kapitaina taldearen animatzaile handienetako bat delako eta halakoak beti eskertzen direlako. Egun 1. mailako sailkapenean 14. postuan dago Osasuna Magna Xota (36 puntu), partida bat gutxiagorekin, jaietsiera postuetatik 6 puntura. Sailkapena estu dago, bere gainetik dauden Jaen, Cordoba eta Ribera Navarra puntu batera daudelako, eta 10. postuan dagoen Zaragoza 3 puntura (39 puntu). Hiru jardunalditan sailkapena hankaz gora jar daiteke, eta 3 jardunaldietan zer esanik ez. Beraz, tentsio handiko liga bukaera izanen da.



Roberto Martil kapitaina ligako une erabakigarrian itzuliko da kantzara. J.L. GORRIA

**"ZALEEN BEHARRA ERE BADUGU. GUZTION ARTEAN ATERA BEHAR DUGU HAU AURRERA" ROBERTO MARTIL**

"Kontuan hartu behar da pandemiagatik talde askok bizpahiru partida atzeratuta dituztela. Beraz, puntu asko daude airean. Egoera zaila da, baina ea mailari eustea lortzen dugun" espero du Martilek.

**Datozen hiru partidak, etxean**

Talde irurtzundarrak hurrengo hiru partidak etxean jokatuko ditu. Asteartean, maiatzak 18, Zaragoza hartuko du Anaitasun; maiatzaren 25ean Aspil Ribera de Navarraren kontrako derbia jokatuko du, eta maiatzaren 27an Inter Movistarren kontrako atzeratutako partida erabakiko da. Azkeneko jardunaldia Katalunian jokatuko du, maiatzaren 29an, Santa Colomaren kontra.

Geratzen zaizkion lau partidetatik hiru etxean jokatzea oso ongi etorriko zaio taldeari. "Gure etxean eta gure jendearen aurrean jokatzeak asko laguntzen du. Zaragoza, Aspil Ribera Navarra, Santa Coloma... gure antzeko mailan dauden taldeak dira; parean gaude. Inter Movistarren kontrako partida berezia izaten da, talde handi horien kontra jokatzea gustuko izaten dugulako. Baina guk Zaragozaren eta Aspil Riberaren kontrako partidetan pentsatu beharra dugu, arerio zuzenak direlako" nabarmendu du kapitainak.

Normalean bi talde jaisten dira 2. mailara, sailkapeneko azken hiru taldeak mailaz jaitsiko dira eta 15. postuan sailkatzen den taldeak mailari eusteko promozioa jokatuko beharko du. "Gai nontzeko taldeetako jokalariekin hitz egitean ia gehienek berdina esaten dute, aurtengoa urte berezia dela, kategoriari eustea zailagoa dela. Eta hori da gehien helburua, 1. mailari eustea" azaldu du Robertok.

**Talde ia berria**

Honi guztiari Osasuna Magna Xotak duen egoera gehitu behar zaio: aurten talde ia berria sortu behar izan du Imanol Arregik, Roberto Martil bezalako jokalarri beterranoen laguntzarekin. "Denboraldi honetan taldearen egitura ia osoa aldatu behar izan dugu. Dani Saldise, Rafa Usin, Eric Martel, Araça... jokalarri garrantzitsuak galdu ditugu, taldean 10 urte zeraman jendea. Orain jokalarri gazteak ditugu, eta ia zerotik hasi gara. Dena den, oso pozik gaude; jokalarri berriak taldera egokitzen ari dira, eta taldea aurrera ateratzeko borrokan gaude" gaineratu du kapitainak.

Martilek aipatu duenez, giro ona dute. "Aste zailak pasa ditugu, azkenekoak bezala, gure le-

sioei Imanol Arregiren falta gehitu zitzaiolako, konfinatuta baitzegoen. Talde indartsuen kontrako partidak ziren, ez genuen garaipenik lortu... Baina, zorionez, larunbatean Valdepeñasen kontrakoa irabazi genuen. Etxetik jarraitu nuen partida, eta oso gaizki pasa nuen. A ze lasaitua! Puntu horiek airea eman digute, bizia" aitortu du Robertok.

**Sentsazio hobekak**

Azken garaipena eta gero taldea hobeto dago. "Lasaitasun gehiago dugu. Badakigu oraindik lana ez dela bukatu, baina sentsazio hobekak ditugu" nabarmendu du. Zaragozaren eta Aspil Riberaren kontrako lehiak garrantzitsuenak izanen dira, euren egoera berean daudelako. "Asko jokatu beharko dugu" dio kapitainak, jardunaldi erabakigarrien aurretik.

Kapitaina kantzara bueltatzeko irrikaz dago. "Oso gogotsu nago. Hilabete pasa daramat kantxetatik kanpo, eta ea asteartean taldea laguntzen dudana" dio. Kapitainaren buelta eskertuko du taldeak, baina Imanolek ezingo du Fabinho kantzaratu, asteazkenean belaunean ebakuntza egin ziotelako.

1. mailari eusteko helburuan zaleen babesa eskatu du Roberto Martilek, eta asteartean, 20:00etan, Anaitasunera gerturatzeko deia egin die. "Zaleen beharra ere badugu. Guztion artean atera behar dugu hau aurrera" ondorioztatu du.

## Lagun Artearen futbol campusa

Aurten ere udako futbol campusa antolatuko du Lakuntzako taldeak. 2009 eta 2016 urteen artean jaiotako neska-mutilek eman dezakete izena, ekainaren 11ra arte, eta hiru aste daude aukeran: ekainak 21-25, uztailak 19-23 eta abuztuak 16-20. Goizeko 9:00etan hasi eta 14:00etan despedituko da eguneko jarduna. Aste bakoitzagatik erroldatuek 85 euro ordaindu beharko dituzte eta erroldatu gabekoek 100 euro. Informaziorako, deitu 636 509 741 telefonora.



# Sakanako Herri Eskolak



## Publikoak, Euskaldunak, Kalitatezkoak.

**AURREMATRIKULAZIOA 2021eko**

**MAIATZAREN 17tik 21era**



ALTSASU



ARBIZU



ETXARRI-ARANATZ



IRURTZUN



ITURMENDI



LAKUNTZA



OLAZTI



UHARTE-ARAKIL



URDIAIN

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 14

**ALTSASU** Gozamenez film laburren gala.  
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

**IRURTZUN Mendi jarduerak.**  
Annapurnako itzulia hitzaldia euskaraz.

Hizlariak: Unai Razkin, Haizea Ramirez de Alda, Naiara Martinez eta Joseba Gandarias. Sarrerak doan, alde aurretik erreserbatu.  
20:00etan, kultur etxean.

## LARUNBATA 15

**ALTSASU Migratuak eta errefuxiatuak ongi etorri Sakanara!** ekimena. Errefuxiatu eremu baten simulazioa: errefuxiatuen errealitatea ezagutzen Help-Na elkartearen bidez, zurrumurruen inguruko hausnarketa, txapak egiteko tailerra eta janari bilketaren simulazioa; Pantxika Lamur eta Oihuarima tal dearen dantza emanaldia.  
10:00etatik 14:30era, Iortia

zabalgunean (eguraldi txarrarekin Burunda frontoian).

**ETXARRI ARANATZ Pello Mariñelarena XXVIII. urteurrena** ekimena.  
Amnistiaren Aldeko Mugimendua.  
12:30ean, plazan.

**ETXARRI ARANATZ Bizitzak hiltzen dituen espetze politikatik askatasunera!** Pello XVIII urte gogoan eta Jean Groix XXX urte gogoan ekimena. Sortu.  
13:00etan, plazan.

**BAKAIKU Bi urte, lau hilabete eta egun bat dokumentalaren proiektzioa.** Ondoren, Bakaikuko intsumituen testigantzak biltzen dituen bideo laburra.  
17:00etan eta 19:00etan, eskolan.

**IRURTZUN Aixita I. bertso sariketa:** Saioa Alkaiza, Iker Gorosterrazu, Eli Pagola, Maddi Ane Txoperena, Imanol Uria eta Xabi Igoa bertsolariekin.

### Tarima Beltza taldeak 'A la deriva' eginen du

Sakanako Mankomunitateak antolatutako *Migratuak eta errefuxiatuak ongi etorri Sakanara!* ekimenari amaiera emateko, Tarima Beltza taldeak *A la deriva* errefuxiatuen istorioak taulartzen dituen antzezlan eginen du larunbatean, maiatzaren 15ean, 18:30ean. Sarrerak 10 eurotan eros daitezke Iortia kultur gunean, eta irabaziak Zaporeak elkartearendako izanen dira. *A la deriva* migrazioari buruzko istoriekin sortutako kontakizun bat da. Hainbat esketekin osatzen da lana, eta kontakizuna biltzen duen hari batek gidatzen du obra osoa.



**BAKAIKU Intsumisioa Sakanan erakusketa.**  
Maiatzaren 14tik 16ra. 12:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:00etara, udaletxean.

**ALTSASU Itsasartearen zabalenean 25 urte, 25 istorio Fernando García Arevaloren argazki erakusketa.** Maiatzaren 15era arte, astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara, larunbatetan emanaldiaren aurretik eta igandetan 18:30etik 19:30era. Iortia kultur guneko erakusketa gelan.



Gonbidapenak:  
aixitabertsosariketa@gmail.com.  
Kanporaketa, 17:30ean;  
buruz burukoa, 19:45; kultur etxean.

**ALTSASU Gazte agenda: Sormen tailerra.**  
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

### IGANDEA 16

**OLAZTI Naturanitzean gozatzen: Orientazio ikastaroa Urbasa maparen eta iparrorrazaren erabilera ikasteko.**  
12 km, 4 edo 5 ordu. 20 euro; 12 eta 25 urte bitarte eta 65 urtetik gora 15 euro. Antolatzailea: Sakanako Mank.

### ZINEMA

#### ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO  
ARETO NAGUSIAN

**El olvido que seremos** gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
Ostirala 14: 19:00  
Igandea 16: 19:30

**Aquellos que desean mi muerte** gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
Osteguna 20: 19:00

09:00etan, Urbasako informazio gunean.

**UHARTE ARAKIL Bideak dokumentalaren emanaldia.**  
18:00etan, udaletxearen ganbaran.

### ZORION AGURRAK



**Boltio**  
Zorionak eta Urte askuen Boltio! Guu artien Oihan, eta gertubo hi, Luis eta beste geñauk... Denak etxien yon artio ezto besteik... Animo ta Jo ta ke!!




HIZKETAN  
beleixe  
107.3 FM

Elkarrizketa guztiak  
[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

**DE KOVEN NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com  
[www.dekovennavarra.com](http://www.dekovennavarra.com)  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU  
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860

**OLAZTI** Ludotekako dantza tailerraren eta Tio Teronen Semeak konpainiaren **Freshcool** dantza emanaldia. 12:00etan, Erburua kiroldegian.



**IRURTZUN Mendi jarduerak.** Mendi Film Festibaleko onena: **Aterpean-Ateri, Charge eta Edmund Hillary. Ocean to Sky** film laburren emanaldia.

Azpittituluak euskaraz eta gaztelaniaz. Aurkezlea: Aitor Elduain. 20:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU Euskal Presoak Euskal Herrira** elkarretaratzea. 20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 17

**ALTSASU Pentsio duinen aldeko** elkarretaratzea. 12:00etan, udaletxearen parean.

**IRURTZUN Clown tailerra Lorena Arangoa** eta adiskideekin. Zuzendaria: Patxi Larrea. Sarrerak doan; bi sarrera pertsonako. 19:00etan, kultur etxean.

## ASTEAZKENA 19

**IRURTZUN, ETXARRI ARANATZ ETA ALTSASU Osasun publikoaren defentsan** elkarretaratzea. 11:00etan, osasun etxearen aurrean.

## JAIOTZAK

- **Hamdi Ded Hamdi**, martxoaren 31n Olaztin
- **Adei Ormazabal Acebes**, apirilaren 27an Olaztin
- **Aritz Gomez Osinaga**, apirilaren 28an Irurtzunen
- **Afrika Ramirez Gonzalez**, apirilaren 29an Urdiainen
- **Peru Rodriguez Arratibel**, maiatzaren 5ean Etxarri Aranatzan
- **Izan Otamendi Churro**, maiatzaren 7an Arbizun

## HERIOTZAK

- **Tomas San Martin Senosiain**, maiatzaren 5ean Altsasun
- **Clara Etxarri Ibañez**, maiatzaren 5ean Olaztin
- **Carmen Casillas Ruiz**, maiatzaren 7an Altsasun
- **Josefa Barrena Imaz**, maiatzaren 7an Olaztin
- **Primitivo Salgado Jorge**, maiatzaren 7an Altsasun
- **Juliana Jauregi Ezkurdia**, maiatzaren 8an Olaztin
- **Miguel Jose Razkin Reparaz**, maiatzaren 9an Arbizun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

## IRAGARKI SAILKATUAK

### HIGIEZINAK

**SALGAI**  
Etxarri Aranatzan, Enfermugurutzeko dermioan, 8500m<sup>2</sup>-ko lursaila salgai: guztiz hesituta dago eta 8 metro eta erdiko sakonera duen putzua du. Deitu 669 809 955 tfnora.

### LANA/NEGOZIOAK

#### LAN ESKAINTZA

**Irurtzungo igerileku kanpainan lanean aritzeko** egingo diren frogetan izen emateko epea zabalik: Udalak 4 ur sorosle (derrigorrezkoa titulazioa, euskaraz jakitea, desfibriladore ikastaroa, lan bilatzaile gisa inskribatuta egotea) eta mantentze arlorako beste 4 langile (Nafar Lansaren langabe gisa ziena emanda egotea eta euskara jakitea) kontratu nahi ditu. Lanaldiaren xehetasunak: hiru egunez lan eta laugarrena jai, hiru turnotan 08:00-15:00, 11:00-13:30 eta 16:00-20:30. Kontratu garagar-tzaroren 12tik irailaren 12ra izango da. Interesatuak, maiatzaren 18ko, astearteko, 14:00ak baino lehen Irurtzungo udaletxeko bulegoetan aurkeztu behar dituzte

eskaerak eta ziurtagiriak. Onartuen zerrenda maiatzaren 19an jakinaraziko da. Euskara frogara (egin behar duenak) maiatzaren 25ean, 09:30ean eta proba teorikoa maiatzaren 28an 09:00etan. Gainditzen dutenekin ordezkapenatarako lan postsa egingo da.

**Lakuntzako Udalak igerileku kanpainan lan egiteko sorosleak, garbitzaileak eta atezainak behar ditu:** Kontratazioak Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kudeatuko ditu. Interesa baduzu inskribatu zaitez, maiatzaren 17, astelehena, baino lehen Altsasuko enplegu-bulegoan, 948 562 754 telefonoan edo <https://empleocitaprevia.navarra.es/webgunean>.

### OHARRAK

**Altsasuko Musika eta Dantza Eskolaren matrikulazio epea:** Datorren ikasturterako izen ematea maiatzaren 17tik 26ra bitartean egin ahal izango da. Online Altsasuko udalaren web orrian ([www.altsasu.net/et](http://www.altsasu.net/et)), presentzialki eskolako idazkari-tzan (Burunda kalea 1, ordutegia astelehenetik

ostegunera 15:00-20:00, ostiralean 9:30-13:30). Espezialitateak: 3-6 urte bitartekoentzat musika eta mugimendua, 6 urtetik gorakoentzat; hizkuntza musikala eta kantua, bateria, pianoa, akordeoia, trikitixa, gitara klasikoa, gitara elektrikoa, biolina, saxofoia, zeharkako txirula, klarineta, tronboia, bonbardino, tronpetak, tuba, txistu, alboka eta gaita, eta 16 urtetik gorakoentzat helduentzako hizkuntza musikala eta instrumentua. Informazioa gehiago [musikaeskola@altsasu.net](mailto:musikaeskola@altsasu.net) helbide elektronikoan eta 948 564 581 tfno zbkira deituz jaso dezakezu.

**Arbizuko egur loteak 2021:** Egur lotea nahi dituenak izena eman dezake 948 460 017 tfnoan, maiatzaren 21a azken eguna. 35 egur lote bakoitzaren prezioa. Ordainketa Caixako ES64 2100 5169 3222 0002 2902 kontuan egin behar da derri gorrez.

**Josefina Arregi Klinikatik eskaera:** Eguneko Zentroan orotzapez taller bat prestatzen ari dira, pertsona orainaldian orientatzeko xedearekin.

Tailerra egin ahal izateko klinikak garai bateko objektuak behar dituela jakinarazi du, esaterako: jostailuak, jolasak, landako edo etxeko tresnak, apaingarriak, eta abar. "Etxean horrelako objektuak baduzu, helaraziezaguz Altsasuko gure zentrorra". Josefina Arregi Klinikari Lagunen Elkar-tea.

**'Altsasu (Gau Hura)' dokumentala amaitzeko crowdfunding diru bilketa kanpaina:** Amets Arzallus eta Marc Parramon dira dokumentalaren egileak, lau urte eman dituzte manifestazioak, epaiak, elkarrizketak eta protagonista batzuen bizipenak grabatzen. Orain postproduktzio fasean daude eta eskatzen duten diru proiektua bukatzeko lanetara, eta istorio hau gure mugez haratago zabaltzera bideratuko da. Crowdfundingaren lotura <https://www.verkami.com/locale/es/projects/29811-altsasu-gau-hura>.

[iragarki@guaixe.es](mailto:iragarki@guaixe.es)  
[www.iragarkilaburra.es](http://www.iragarkilaburra.es)

## ESKELA



## Miguel Jose Razkin Reparaz

"Hegoak ebaki banizkio nirea izango zen etzuen alde egingo, baina honela etzen gehiago txoria izango eta nik txoria nuen maite"

Beti onen za gui biyotzetan aittuna

Zui ilebak eta bilobak

## ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo [eskela@guaixe.es](mailto:eskela@guaixe.es)

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€ prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek %10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU ETXARRI ARANATZ  
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

# Dantza istorio baten sorrera

DNA programaren barruan Led Silhouette dantza konpainia erresidentzia artistikoa egiten ari da Altsasuko lortia kultur gunean. Astelehenean hasi zuten eta lau astez lan berri baten prozesuaren lehenengo urratsak egiten dituzte

## Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Led Silhouette Lesakan egoitza duen dantza konpainia bat da. Martxel Rodriguez lesakarrak eta Jon Lopez madrildarrak osatzen dute, eta Rodriguezek azaldu duenez, proiektuaren arabera jende gehiagorekin lan egiten dute, "bai dantzarekin zerikusia dutenak, baita arte plastiko, bisual edo dokumentalarekin lotura dutenak ere".

"Erresidentzia bat egitea da espazio bat eta baliabide teknikoak izatea sorkuntza berri bat hasteko. Gure kasuan, gainera, bide hau zerotik hasten da; orduan, hazi horretan gaude, hasieraren hasieran". Astelehenean



Martxel Rodriguezek eta Jon Lopezek osatzen dute Led Silhouette dantza konpainia.



## BAZTERRETIK

RICARDO ARETA  
URRESTARAZU

## Los Suaveseko beltza

Hermenegildo Alogo Mebuy "Hermes"-i, bere aita hil ondoren 14 urte zituela, Gineako bere herrixkan buruzagi titulua oinordetzan jasotzea zegokion, eta bertatik ihes egin zuen, hain gazte izanik halako erantzukizunik hartu behar ez izateko. Europar zortea probatzea erabaki zuen eta Ourensera iristean La ciudad de los Muchos-eko zirkuan murgilduko da. Mutil sendoa eta trebea zen, eta akrobaziak egiten zituen bizikletarekin, bere ikuskizun ospetsuena, bizikletaren gainean akrobata batzuekin kargatzea zen, errege indioilar baten isatsaren forma berdindu nahi izanez. Denborarekin, bizikleta alde batera utzi eta gitarra hartu zuen, zirkuko saioak animatzen zituen orkestran sartuz.

Oraindik oso gaztea izanik eta zirkuari esker mundu osoan zehar bidaiatzeko aukera izan zuen. Australian AC/DCKo Angus eta Malcom Young ezagutu zituen. Japonian bere ibilbide osoan lagun izan zuen

gitarra elektrikoa erosi zuen, 7.000 pezeta ordainduta. Txinan disko-grafiaren munduarekin harremanetan jarri eta gitarra batzuk grabatu zituen beste talde batzuentzat.

80ko hamarkadan, gitarra jotzaile ondua zela, Los Suaves taldean sartu zen gitarra bakarlarigisa. Hermes-ekin soinuak Los Suaves-en etaparik melodikoena eta rockeroena markatu zuen, eta taldearen gorakada bizi eta Ourensekoen lehen bira handietan gozatu ahal izan zuen.

Talde arrakastatsu batean lan egonkorra izan arren, ezin izan zituen bere paperak erregularizatu, eta beti izan zituen arazoak bere nazionalitatearekin. Ezkondu ondoren ere, bi seme-alabarekin, ezin izan zuen bere egoera konpondu, eta are gehiago Espainiako kolonia ohi batetik zetorrela kontuan hartuta. Banandu ondoren, bere egoera are zailagoa egin zitzaion, eta Ourense biltzeko eta lan egiteko dituen arazoak etengabeak dira.

Bere osasuna mindu egin zen paralisi partzial baten eraginez, pixkanaka gitarra jotzaile gisa zituen trebetasunak gutxitzen zihoazen, gitarran akorde bakar bat ere jarri ezin izateraino. Gaue-

tik goizera, azalpen gehiagorik gabe Hermes desagertu egin zen eta inork ez zekien ezer gehiago berari buruz.

Yosi eta gainerako taldekideek Madrilen jotzen zuten guztietan, Gineako enbaxada bisitatzeke aprobetxatzen zuten, baina inoiz ez zuten Hermes non zegoen jakin. Kontzertu baten ondoren, Hermes-ekin emazte ohiak eta bi semeek Los Suaves-en backstagea bisitatu zuten, 2003an Gineako gitarristen heriotzaren berri emateko.

Albiste hau ez zuten taldearen jarraitzaile askok sinistu eta Hermes-ekin irudiaren inguruan elezahar beltz moduko bat sortzen hasi zen, urte batzuk beranduago, rock zale misiolari batek musikariaren heriotza blog baten bidez baieztatu zuen arte. Misiolari blogariak Hermes Bata hirian ezagutu zuela dio. Inoiz bataiatu ez bazen ere, erregulariki joaten zen kongregazioak Comandachina auzoan egiten zituen bileretara. Mugitzeko zailtasun handiak zituen eta begirada galdua. Hermes bere amarekin bizi zen, sorgintzat jotzen zuena, eta maitasunez gordetzen zituen Los Suaves-en taldekide izan zen garaiko argazkiak.

hasi eta hiru hilabetetan banatuta lau aste pasako dituzte Altsasuko kultur gunean. Bertan pasatzen dituzten ordu horietan "zerbait" aterako da. "Hasierako parte hau polita da ez dakizulako seguru nora joanen den prozesua, baina aldi berean, fisikoki erakargarriena den momentua da, gauza gehien probatzen direlako".

Marcos Morau koreografoaren laguntza izanen dute bidean "ideiak konfrontatzeko eta berarekin jarraitzeko". Morauren estiloa "ezaguna dute" berarekin lan egin dutelako, Lopezen kasuan koreografoaren La Veronal konpainian eta Rodriguezen kasuan Kukairen ikuskizun bat zuzendu zuenean. "Badakigu zein norabidetan joanen den".

## Leialtasuna

Proiektuaren hasieran badaude ere, ez dira zerotik hasten eta *Los Perros* da proposatu duten izenburua. "Proiektu bat aurkezten duzunean izenburu bat jarri behar duzu, gero proiektuak aurrera egiten duenean aldatu daitekeena". Txakurrek haien jabeekiko duten baldintzarik gabeko maitasuna eta fideltasuna dago oinarrian, eta haiek dantzarekiko duten erlazioarekin bat egiten dute: "Dantzarengatik zenbat sakrifizio egin ditugun eta zer fidelak garen. Nola dena ematen dugun gure ametsengatik eta dena aurrera eramateagatik". Koreografoarekin duten "laguntasun harreman estuarekin" lotzen dute ere.

Lana datorren urteko apirilean mustutzea aurreikusten dute, eta "modu organikoena eta politena" Iortia kultur gunean mustutzea izanen zela esan du Rodriguezek, behintzat, emanaldi bat bertan egitea: "Gu plazer handiz bueltatuko gara emaitza zein den erakustera". Kultur guneak erresidentziarako behar dutena baino gehiago eskaintzen du, hasierako prozesuan daudenez, "musika aparatu bat, lurra eta ideiak botatzea eta lanean aritzea" baino ez dute behar. Hala ere, Nafarroako antzoki "hoberenetariko" dela esan du dantzariak.

## "HASIERAKO PARTE HAU POLITA DA EZ DAKIZULAKO NORA JOANEN DEN PROZESUA"

Eszenatokia planteatzen dituzten lanekin "emozio estetiko bat" lortzen dutela azaldu du Rodriguezek. "Lan koreografikoki garbiak aurkezten dituzte, lerro berezi batekin oso landuak". Morauk ere "estilo propioa" du eta espazioaren tridimentsionaltasunean eta gorputzaren konplexutasunean oinarritzen da. *Koba* deitzen da Morauren "lengoaia koreografiko propioa". "Teloia ireki, dantzari bat agertu, eta badakizu bera hor dagoela".

## Egunerokoa

Edozein langile bezala, Rodriguez eta Lopez esnatzen dira eta Iortia kultur gunera joaten dira. Bero-keta batekin hasten dute jardunaldia. "Egunaren arabera teknika desberdin bat izan daiteke: dantza garaikideko teknika lurrean edo yoga pixka bat...". Arratsaldeko bostak arte egon daitezke lanean, eta gorputza ongi prestatu behar dute. Erresidentziaren lehenengo aste honetan Morauk markatu dizkien zenbait pautak edo arauak deitzen direnak egiten aritu dira.

"Dantza garaikidean egiten dena da ideia bat bota eta pautak espazial bat aipatu, gorputzaren kualitate bat landu eta inprobisazioaren bitartez nonbaitera iritsi". Fase honetan "etengabe bilaketa" bat izanen da kanpoko "begirada horri" interesatzen zaionera iritsi arte. Ikerketa lana egiten dute. "Hori da gainera Nafarroako Gobernutik DNA programaren bitartez planteatzen duten egonaldi hauen helburua: ikerketa eta sorkuntza etapa hau".

Dantza garaikidea eta konpainiak Nafarroan sustatzeko eta zabaltzeko programa da DNA. "Kasu honetan egonaldi hauek eskaintzen digutena da gure herrian edo beste herri batean espazio batean lan egitea". Altsasuko eszenatokia ez da berria Led Silhouette konpainiarendako bertan zenbait emanaldi egin dituztelako. "Baina bolo egun batean etortzen gara, muntatzen dugu, egiten dugu eta joaten gara. Egondiarekin ikusten dugu nolakoa den bertako egunerokotasuna eta erlazio berriak erakitzen laguntzen du". Herriko kultur taldeekin elkartzeko asmoa dute. DNA programak ere "guztiz beharrezkoa" den baliabide ekonomikoa eskaintzen die ere. Proiektuaren hurrengo prozesuetarako laguntza izatea espero dute apirilean lana mustu ahal izateko.



Irurtzunen bizi den David Almazán, 'Circo Dabitxi' da.

# "Ni zirkua sentitzen naiz"

**DAVID ALMAZÁN PRIETO ZIRKU ARTISTA**

Benicassimen jaioa Hego Ameriketara eta Europan zirkua ikasi ondoren, Circo Dabitxiren operazio basea Irurtzun da. Bi ikuskizun ditu martxan, zirkuko tailerrak egiten ditu ere

## Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

Circo Dabitxiren atzean David Almazán Prieto dago. Irurtzunen bizi da, eta iritsi zenean harrera oso ona izan zuela esan du Almazánek: herrira bizitzera malabarista oso on bat etorri zela esan zioten, eta etxera ezin sinistu joan zen. Berari buruz ari ziren hitz egiten.

## Zerk ekarri zintuen Irurtzunerara?

Kirol eta mendi teknikaria naiz, baina zirkua betidanik bertan egon den zerbaitekin da. Txikitatik egiten ditut malabareak eta abar. Orduan, 2007an ikasketekin jarraitzea erabaki nuen. Garai horretan Madrilan, Bartzelonan edo Iruñean zeuden eskolak, eta Iruñera etortzea erabaki nuen. Gero Hego Amerikan egon naiz, Europatik, penintsulako hainbat tokitan egon naiz ere, bi alaba ditut... Hamalau urte hauetan gauza asko gertatu dira, eta Irurtzunen bukatu dugu.

## Nor da Dabitxi?

Dabitxi forma artistiko bat da. Nire jaioterrian Almazán deitzen ninduten klasean hiru David ginelako eta abizenagatik deitzen gintuzten. David oso gertuko pertsona erabiltzen zuten. Iruñera iritsi nintzenez jendea David, Dabitxi, Dabitxi eta abar deitzen hasi zen eta gustatu zitzaidan. Deitzeko beste modu hori bitxia iruditu zitzaidan. Nire proiektuarekin hasi nintzenez Circo Dabitxi deitzea erabaki nuen.

## Eta zer da Circo Dabitxi?

Circo Dabitxi ulertzen dut nire proiektuak aurrera eramateko plataforma bat bezala. Dabitxik

**"ZIRKUA PUBLIKOAREN AURREAN AURKEZTU AURRETIK OSO LANDUTA EGON BEHAR DU"**

konpainia desberdinetarako lan egiten du ere. Circo Dabitxiren emanaldiak bakarkakoak dira: *Eta... Pepu?* eta *Makina eta biok*, baina jende gehiagorekin ere egiten ditut ikuskizunak. Zirkuko tailerrak egiten ditut ere, esaterako bihar Iruñean *Bazen behin zirkuko bat* tailerra eskainiko dugu.

## Zergatik zirkua?

2020an elkarte sozio kultural baten sorreran parte hartu nuen nire herrian, gaur egun martxan dagoena. Bertan proiektuak egiten genituen. Institutuan ikasten nituen gauzak kolektiboan praktikan jartzen genituen eta kolektiboan egindako gauzak irakastei erakusten nitzkien. Lau urte pasa nituen institutuan eta denetarik egin nuen. Malabareak, zankuak, monozikloa eta abar egiten nituen. Garai horretan neskalaguna zenarekin beste kolektibo bat egin nuen, eta hau ikuskizunetara bideratuta zegoen.

## Nola sortzen dituzu zure proiektuak?

Zirkua egiten dudanez, sortze prozesuak oso motelak dira. Hau da, publikoaren aurrean aurkeztu aurretik oso landuta egon behar dute. Musika erabiltzen dut, dantza ez dut egiten baina espazioan zehar mugitzen naiz eta mugimenduak egiten ditut... Malabareak egiten ditudanean arrazoi bat dago. Adibidez, eskailera batean egiten ditudan orekak giza antena baten papera egiteko dira.

## Istoria bat dute atzean.

Zirkuko hainbat arte diziplina lantzen ditu ikuskizun bakar batean. Musika interpretatu dezakezu, dantza akrobazien eta mugimenduaren bidez egiten da... Teknika desberdinak uzartzen dira. Ni zirkua sentitzen naiz. Nire gain nagusia malabareak dira, baita oreka ere. Akrobazia ere egiten dut. Ilusionismoa edo magia zenbakiren bat sartzen dut, eta pailazoaren sudurra ez dut jartzen, baina pertsonaia erridikulutik gertu dago. Horrekin jolasten dut ere.

## Zertan oinarritu zara?

Ikusten ditugun eta sentitzen ditugun istorioak dira. Haurrendako zirkuko bezala iragaritzen naute, orduan jendea joa-

**"OSO ZAILA IZATEN ARI DA. NAFARROAKO ZENBAIT OGIBIDE KIDEK UTZI DUTE"**

ten da zirkuko ikuskizun bat ikustera; ez dakit jendeak zer puntutaraino ulertzen duen. Beste batzuetan helduek haurrak baino hobe ulertzen dute, bi zentzu izan ohi dituelako esaten dudanak. Baina Pepuren kasuan arauei buruz hitz egiten du; ikuskizun antisistema bat da. Arauak dudak jartzen ditut. *Makina eta biok* makinek zer puntutaraino laguntzen gaituzten planteatzen dut.

## Zerk bereizten zaitu?

Ni ez naiz dagoen artistarik hobereana, eta ez dut izan nahi. Hori lortzeko gauza asko utzi behar dira bidean, eta %100 honetan lan egin behar duzu. Egiten dudanarekin pozik nago. Bereizgarritasuna izan daiteke nik objektu asko erabiltzen ditudala: pilotak, aroak, erraketak, diaboloa...

## Nola ikusten duzu zirkuko mundua?

Oso zaila izaten ari da. Nafarroako zenbait ogibide kidek utzi dute; zirkua maila altu batean egiten zuten lauzpabost pertsonak. Ni mantentzen naiz nire bikotekideak lana duelako. Berak egiten duenarekin aurrera egiteko aukera ematen digu. Kanpoan ez nagoenean etxean nago. Nire irabaziez iraun behar banu... ezingo nuke.

## Antzoki Sarean sartu zara aurretik. Horrek lagundu dizu?

Nahiko ambigua da. Oso eskertuta eta pozik nago sarean egozaten. Baina niri ez dit ezer konpontzen. Badira konpainia batzuk zortzi emanaldi dituztenak eta beste batzuk, nire kasuan bezala, bakarrik egingo duguna. Guztion ardura da. Jendeak jakin behar du hemen gaudela. Makinaren ikuskizuna Frantzia, Italia, Katalunia eta Sevillan aurkeztu ditut. Estereotipoak hor daude ere. Nire arazo hizkuntza da.

## Estereotipo asko daude?

Zirkua egiten dutenen iragarkiak ikusi ditut eta pena ematen didate. Zirkuko izena erabiltzen ari dira beste produktu batzuk saltzeko. Nik ez dut esaten magia egiten dudunik, nahiz eta magia sartu. Zirkua hitza erabiltzen dut ni ez naizelako aktorea eta ez delako antzezlan bat; antzerkiaren elementuak sartzen badituzte ere. Baina zirkuko ikuskizun bat da. Institutuon lana dago ere. Ikastaroak eman nituen kiroldegi batean eta oraindik proposatutako metodologia erabiltzen dute.



Lorea loradenda eta belar dendako Ceistina eta Marta Diego Diaz ahizpak amarekin. UTZITAKOIA

# "Loreekiko sentsibilitate berezia behar duzu"

Altsasuko Lorea loradendak eta belar dendak 40 urte bete ditu. Marta eta Cristina Diego Diaz ahizpen amak ireki zuen eta haiek loreen eta belarren munduan jarraitzea erabaki zuten

**ERKUDEN RUIZ BARROSO** ALTSASU

**1 Nolakoak izan ziren hasierak?**  
Denda gure amak ireki zuen duela 40 urte. Belar denda eta

loradenda izan zen hasieratik. Belar denda familiaratik zetorren: aitona eta birraitona medikuak ziren, eta nahiko naturalistak. Amak kontaktzen zuen 11 urte

bete arte begetarianoa izan zela. Orduan, nire amak oso argi zeukan belar dendarena txikitatik jaso baitzituen jakintza horiek. Loradenda izatea ere erabaki

zuen loreak asko gustatzen zitzaizkiolako. Balkoian loreak jartzen zituen, garai horretan ez zen hain ohikoa. Helduagoak ginenean, bazkide batekin denda irekitzea erabaki zuen.

**2 Zerbait berria izan zen, ezta?**

Bai. Hemen ez zegoen. Gertuenak Iruñean eta Gasteizen zeuden. Garai hartan ez zeuden gaur egun dauden ikastaroak, eta ama hiriburuetakako loradendetara joaten zen lore sortak nola egiten ziren ikastera. Ikasteko ahaleginak egin zituen. Guk ikastaro asko egin ditugu espezializatzeko. Denborarekin ikasi dugu.

**3 Zergatik da Lorea berezia?**

Apainketengatik eta eskaintzen dugun zerbitzuagatik. Gure bezeroak fidelizatzeke, erosketak bakoitzeko %2a txartel batean itzultzen diegu. Lore ikastaro ospetsuenetarikoak egin ditugu. Lore artean esperientzia handia dugu. Gauza da geldirik ez egotea; gauza berriak probatzea.

**4 Zergatik erabaki zenuten amaren ibilbidea jarraitzea?**

Nik uste jakin-minagatik. Cristina denda bat ireki zuen Iruñean, eta ni hemengoan hasi nintzen. Gero erabaki genuen Iruñekoak kentzea eta biak hemen egotea. Duela 26 urte inguru hasi nintzen. Cristinaren kasuan loleen munduan 32 urte daramatza.

**5 Zerbait berezia behar da loreekin lan egiteko?**

Sentsibilitatea behar da; loreekin ibiltzeko sentsibilitate berezi bat. Gero artea eta gustua ere. Azkenean, zerbait artistikoa da, eta ahalmen artistiko hori izan behar duzu. Arte familiaratik gatoz, eta nabaritzen da.

**6 Estilo propioa duzuela esan daiteke?**

Naturarekin lan egiten dugu; naturan aurki daitezkeen elementuekin. Mendira joatea gustatzen zaigu, eta inspirazio iturri da. Orduan, horrekin lotzen ditugu gure lanak. Naturatik gertuen dauden loreekin lan egitea gustatzen zaigu, hau da, tintatu gabekoak, ahalik eta naturalenak. Esaterako, 2017an Landart ikastaroa egin genuen Aralarren.

**7 Zein da zuen landare edo lore gogokoena?**

Martari gehien gustatzen zaiona fresia da. Usainagatik gehien bat. Ez da oso lore ikusgarria, baina ikustean harrapatzen zaitu. Cristinari platycerium edo altze adarra. Hostoak grisak dira eta altze baten adarrak dirudite.

**8 Erakusleho lehiaketa bat irabazi duzue, ezta?**

Centrum belar denda markak antolatzen zuen. Haiek eskatzen zuten haien markaren zazpi eta hamar produktu bitarte agertzea erakuslehoan. Espainia mailan hirugarren saria irabazi dugu. Erakusleho apainketa gustatzen zaigu. Horretan ere asko busti gara. Ez zen denboraldi hoberena lan asko genuelako, baina zerbait egitea erabaki genuen. Basoko makilekin apaindu genuen, naturaren elementuekin eta barazkiekin. Ez da irabazten dugun lehenengoa: bi urtez Altsasuko inauteriena irabazi genuen.

**9 Garai berrietara egokitu zarete ere.**

Informatikan oso txarrak ginen, baita sare sozialetan ere, eta horretan boom bat egin dugu. Online denda ireki dugu ere. 2017an Etxarriko denda ireki genuetik informatizatu ginen, eta webgunea egin genuen. Asko ikasi dugu. Oso mugituak gara. Orain Marta euskara ikasten ari da eta Cristina argazkilaritza.

**10 Zein da urteko sasoirik hoberena?**

Maiatza. Baita Saindu Guztien eguna ere. Prestaketek hilabete bat irauten dute eta gero bezeroak azken asten horretan etortzen dira. Baina orain, apirilaren bukaeran hasi eta ekainaren hasieraraino lan handia izaten dugu. Loreak gaur egun errazago lor daitezke. Garestiagoak dira, baina edozein garaletan edozer jar dezakezu. Iruñetik, Valentziatik, Txipionatik, baita Herberetatik ere ekartzen dizkigute loreak.

**11 Loreak jarraipena izango du?**

Ezetz uste dugu. Gure seme-alabek beste bide batzuk hartuko dituztela esango genuke. Norbait animatzen bada... Nork daki, agian azkenean helduago egiten direnean gustua hartzen diote eta animatzen dira. Lan handiko garaletan laguntzera etortzen dira, baina momentuz ez zaigu iruditzen.

## 2021-2022 IKASTURTEA



**ESKOLA AGENDAK**  
Estandarrak edo pertsonalizatuak  
Euskal Herriko jaiegunak  
Unibertsoari buruzko ezagutzak handitzeko aukera



**IRAKASLE AGENDAK**  
Estandarrak edo pertsonalizatuak  
A5 edo A4 neurrikoak  
Barruko orrialde zuluak edo koadernatuak

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE      EGIN ZURE ESKAERA 2021EKO MAIATZAREN 31 BAINO LEHEN

618 640 056 | gk@gkomunikazioa.eus | Foru plaza, 23-1. Altsasu



DISEINU GRAFIKOA  
WEB DISEINUA  
KOMUNIKAZIOA